

# JAKINGARRIAK

**Irteerak, eskola  
eta ingurunea  
lotzeko bideak**

**kukuluma**

# JAKINGARRIAK

“JAKINGARRIAK” Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean kokatua dagoen Dokumentazio Zentroko informazio-tresna da.

Dokumentazio Zentroak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu ditugun baliabideak honako irizpide hauen arabera dira:


- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak
- Komunikaziorako eta elkarrekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Dokumentazio Zentroak, irakasleen prestakuntzarako hiru baliabidetergi eskaintzen ditu:

- Haur hezkuntza (0-7 urte)
- Hizkuntzen didaktika
- Haur liburua eta Eskolako Biblioteka

“JAKINGARRIAK” aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Kontsulta, gure Zentroa bisitatuz.
- Fotokopiak: artikulua, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.

 **Argitaratzailea:** Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.  
**Laguntzailea:** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.  
**Erredakzioa:**  
Mondragon Unibertsitatea. Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea.  
Dorleta auzoa z/g  
20540 Eskoriatza  
Tfnoa: 943-714157  
Faxa: 943-714032  
E.mail: [liburutegia@huhezi.edu](mailto:liburutegia@huhezi.edu)  
**Zuzendaritza:** Nerea Alzola  
**Erredakzio Kontseilua:** Pello Añorga, Xabier Arregi, Mariam Bilbatua, Iñigo Ramirez de Okariz  
**Itzultzailea:** Iñaki Mendiguren  
**Euskara zuzentzailea:** Karmele Pérez  
**Idazkaria:** Mari Karmen Apraiz  
**Azala:** DIARA Diseinua  
**L.G.:** SS-981/92

# AURKIBIDEA

## Berri bibliografikoak

- 🌀 Liburu berrien albisteak ..... 4. orr.
- 🌀 Artikulu aipagarriak ..... 7 orr.

## Gai monografikoa:

### Irteerak, eskola eta ingurunea lotzeko bideak

- SARRERA ..... 10 orr.
- 🌀 Xabier Arregi Murgiondo:
  - Eskola-irteerak: “Ibilaldi gidatua” gai honetan zehar. .... 12. orr.
- 🌀 Iñigo Ramirez de Okariz Telleria:
  - Ondare Kulturala (Ondare historiko artistikoa)..... 17. orr.
- 🌀 Xabier Arregi Murgiondo: ..... 20. orr.
  - Ibilbide gidatuak: Mikel Regero Osinalderi elkarrizketa
- 🌀 Iñigo Ramirez de Okariz Tellerita:
  - Hiri Itinerarioak. .... 23. orr.
- 🌀 Javier Sánchez García:
  - Ingurumen hezkuntzarako ekipamenduak: Hezkuntza-inplikazioak. .... 29. orr.
- 🌀 Iñigo Ramirez de Okariz Telleria:
  - “Eskoriatzako Museo Eskola”. Isabel Guridirekin elkarrizketa. .... 34. orr.
- 🌀 Sara Aranburu, Idoia Mantxola:
  - Mirandaola, Natura eta Artisauzintza parkea. .... 39. orr.

## Baliabideak.

- 🌀 Aitziber Osinaga:
  - Zaborra: zer egin? ..... 42. orr.

# Berri bibliografikoak

## □ Liburu berrien albisteak



**PAULO FREIREN EKARPENAK -**  
*Aportaciones de Paulo Freire - Contributions de Paulo Freire.* - Ikastaria. Hezkuntza Koordenak /Eusko Ikaskuntza.- Donostia. 10. zka. (1999)

**I** 970eko urteetan, Freire Genevako egoitzatik Europan ezagun bihurtzen hasi zenean, irrikaz irakurri genituen idazle brasildararen lehenengo liburuak. Unibertsitateko ikasketa formaletatik kanpo, hausnarketa eta eztabaidarako mintegiak antolatzen genituen.

Pedagogo honen jarduera ikaragarria izan arren, hezkuntza-sistema formaletan eta azken urteotan zertutako hezkuntza-erreformetan ez du ia inolako eraginik izan. Freire jende heldu behartsuentzako, mundu aberatseko eskualde baztertuertarako edo Hegoaldeko herrialde behartsuetako jenderik behartsuenarentzako idazletzat hartu izan da, eta badirudi ez duela ekarpenik hezkuntza formalerako.

Hala ere, eta egoera horrekin kontraesanean, haren argitalpenek, hitzaldiek, topaketek aurrera segi dute geratu gabe munduko hainbat lekutan, eta haren hausnarketa eta praktikak egungo hezkuntza eta gizartearekin konprometituriko jende garrantzitsuagan izan du oihartzuna eta eragina. *La naturaleza política de la educación* liburua-ren hitzaurrean Giroux-ek dioen bezala, Freire-ren asmoa ez da formula erradikalak eskaintzea, pedagogia kritikoa berehalako modalitate bihurtzeko; aitzitik, zenbait adierazle teoriko ematen du, dekodetu eta kritikoki asumitu beharrekoak, erabilgarri gerta litezkeen testuinguru berezien esparruan.

Orain euskaraz irakurtzeko aukera dugu, Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulita, Paulo Freireren azken liburua: *Autonomiaren pedagogia. Hezkuntzan jarduteko beharrezko jakiteak*. Liburua Eusko Ikaskuntzaren Ikastaria-ren zenbaki berezi honetan argitaratu da, pedagogo brasildarari egindako omenaldi-jardunaldi batean aurkezturiko beste lan batzuekin batera. Talde horren ahaleginari esker, Freirek utzitako azken arrastoei jarraitzeko aukera dugu, eta Girouxek aipaturiko lan hori egiteko aukera.

Liburuan —3 kapitulutan banatua: Ikaskuntzarik gabe ez dago irakaskuntzarik, Irakastea ez da ezagutza transferitzea, Irakastea giza berezitasun bat da— Freireren pentsamendu klasikoak aurkitzen dugu. Sarri errepikatzen dituen gaiak —kontzientizazioa, hizkuntzen garrantzia, ezagutza kritikoa, gizatasunaren garrantzia— oso era didaktikoan daude azalduta, oso argi.

Nolabaiteko testamentua da, bertan bere lanaren, hausnarketaren, ekarpenaren... laburbilduma eskaintzen digularik; azken dokumentu hau sakona, benetakoa, xumea eta zirikatzailea da.

Hona hemen haren ekarpenetako batzuk, hausnarketa eta lanerako benetako bideak eskaintzen dizkigutenak:

# Berri bibliografikoak

a. Freirek guztioi dei egiten digu, batez ere hezitzaileoi *gente mais gente* (jende jendeago) izatera, hau da, jende zorrotz eta diziplinatua adimenez, jakin-min epistemologikoa etengabe elikatuz; eta aldi berean, apaltasun, jatorrasun eta harrokeriaren aurkako borrokarako deia egiten du.

*Gente mais gente*, aldaketaren aukeran sinesten duena, jende apala, tolerantzia eta borrokalaria. Zentzua duen jendea, elkarriketarako prest, bizitzeko eta lanerako baldintza duinak bilatu eta horien alde borrokatzen duena. Duintasunik ezaren aurrean sumintzen den jendea.

b. Freirek errealitatea ikertu beharra azpimarratzen du, ezagutu, komunikatu eta eraldatzeko. Benetako irakurketa-ekintza prozesu dialektikoa da, ezagutzaren eta munduaren eraldaketaren eta ezagutzaren eta geure buruaren eraldaketaren arteko erlazioa sintetizatzen duena. Ezagutza ez da zerbait egina edo burutua, gizarte-prozesu bat baizik.

c. Freirek itxaropen aktiboa, eraldatzailea du, gizon-emakumeen indar sortzaileetan konfiantza duena. Izaki burutu gabeak garenez, giza izaeraren parte da itxaropena, etengabeko bilakuntza-mugimendua. Historia geuk egiten dugu.

d. Geure burua izaki baldintzatutzat onartu behar dugu eta, beraz, kontzientizazioaren beharra daukagu. Berarentzat, jakin-min epistemologikoa praktikan jartzeko bideetako bat da, berezko bidea burutu gabeak garen izakiontzat.

e. Freirentzat, egunerokotasuna funtsezkoa da, hor egiten dugu geure bizitza, geure heziketa. Eta espazio txiki horretan lantzen dugu entzutea, isiltasuna, etika eta estetika.

Onartu beharra dago hezkuntza ideologikoa dela, sekula ez neutroa. Guztiak izango du bere garrantzia. Gure hezkuntza-ekintzarentzat funtsezkoa da subjektuari analisi tresnak ematea,

gatazka-gai dena eraikuntzarako bide bihurtu dadin.

f. Eta Freirek, beti egin duen bezala, begirunea, entzutea, elkarriketa-beharra, ikaslearen-ganako onginahia errebindikatzen ditu.

Maila globalean, bizi dugun une konplexu, gogor eta zail honetan, Freirek zera gogorarazten digu: gizakia, minimizatzen duten mekanismo guztiak baino handiagoa dela, gizakiarenganako ardurak lehentasuna behar duela, helburuen eta mediazioen arteko erlazioan zorrotztasuna premiazkoa dela, sumintzea nahitaezkoa dela, hezkuntza ekintza politikoa dela.

Lehen esan dugun bezala, liburua oso didaktikoa da, kapitulu bakoitzeko atal bakoitza autonomoki ere irakur daiteke, eta aztergai bihurtu daiteke lan-talde txiki, mintegi, etab.etan. Pedagogia honen ibilbide eta ekarpena entzutea, eta horri gugan oihartzun eta bidea egiten uztea zirrarragarria da, nahiz eta Paulo Freirek berak esango lukeen ez dela aski, ezta gutxiagorik ere. Baina itxaropen horrek eragiten digun “kontsolamendua” beharrezkoa zaigu bizi, hezi eta borrokatzeko. Zeren eta noren alde ikasten, ezagutzen eta hezitzen dugu? Galdera hori berriro entzun behar da gure foroetan. Eta horretarako Freireren lanaren laguntza daukagu orain.

# Berri bibliografikoak



**URI RUIZ BIKANDI (editorea)**  
(2000): *Didáctica de la segunda lengua en educación infantil y primaria*. Síntesis Educación, Madrid

**U**ri Ruiz Bikandi-ren koordinaziopean, irakaskuntza elebidunaren arlo desberdinetan aditu diren zenbait autorek hainbat gai jorratu dituzte: H2ren ikaste-irakaste prozesuarekin erlazionatutako gaiak, H1 eta H2ren ikaste-prozesua eta prozesuan eragina duten aldagaiak, hizkuntzen irakaskuntzaren inguruan garatu diren ikuspegiak eta, horien tartean, Ikuspegi Komunikatiboan oinarritutako proposamen didaktikoak. Aipatutako prozesu orokorrekin lotutako gaiez gain, oinarritzko lau trebetasunen (ahozko ulermena eta ekoizpena eta idatzizko ulermena eta ekoizpena) ikaste-prozesua ere aztertzen da eta prozesu horri zuzendutako estrategia didaktikoak ere azaltzen dira.

Liburu honek hainbat tresna lagungarri eskaintzen ditu irakaskuntza elebidunean inplikatu-

ko edo interesatutako irakasle eta ikasleentzat. Baita ikaste-prozesuari buruz hainbat irakaslek maiz egiten dituzten galderak erantzuteko (akatsen arrazoiak, ikasleen arteko desberdintasunak...) edo/eta prozesuaren alderdi desberdinen garapenarekin erlazionatutako interbentzio estrategiak ezagutzeko ere (ekoizpena bultzatzeko, akatsak zuzentzeko, ulermen estrategiak garatzeko...).

Irakasleen jarduera hobetzeko tresna lagungarriak eskaintzeaz gain, irakaskuntza elebidunaren inguruan garatu diren ikuspegi teorikoen eta ikerketen berri ere ematen du. Gaiaren ikuspegi osatua ematen du beraz.

Liburuaren antolaketari dagokionez, edukien erabilgarritasuna bermatzeko oso baliagarria da kapitulu guztiek jarraitzen duten eskema: gaiaren inguruko azalpenaz gain, gaiaz hausnartze-ko eta irakurritakoa beste testuinguru batzuetan aplikatzeko hainbat jarduera proposatzen dira, eta jarduera horiek oso baliagarriak izan daitezke lanean ari diren irakasle taldeen hausnarketa bideratzeko edo irakaskuntzarekin erlazionatutako ikasketak egiten ari diren ikasleen jarduerak bideratzeko.

Aipatutako alderdi horiek guztiak kontutan hartuta, testu honen ekarpenaren garrantzia azpimarratu nahi dugu eta irakaskuntza elebidunean inplikaturako irakasleei gomendatu nahi diegu.



# Artikulu aipagarriak



**CENTRE ELS PINS: “Una proposta d’educació en valors a 0-3”  
Infància 115, juliol-agost  
2000, 12-16 orr.**

Hezkuntza-proiektu baten bilakae-  
ran, Els Pins haur eskolako ekipoak bi  
zutabe aurkitu zituen: bakearen hez-  
kuntza eta baloreen hezkuntza. Aipatu  
ardatz hauen inguruan eta berauek lan-  
tzeko asmotan, eguneroko bizitzan  
txertatutako ekintza aproposak pro-  
gramatu zituzten.

Agian kontzeptu batzuk definitu  
gabe gelditzen dira, baina funtsean  
prozesua eta emaitza interesgarriak  
dira.



**ARNAIZ, V.: “ La imagen de  
uno mismo... ¿es evaluable?.  
Indicadores de mínimos al final  
de la educación infantil.**

**Aula 93/94, julio-agosto  
2000., 66-72 orr.**

Norberaren irudia bizitzan eta  
ikaste prozesuan ardatz nagusia da.  
Hau dela eta autoreak haur txiki-  
ren irudia ebaluatzeko, tresna politik  
eskaintzen dizkigu. Segurtasun afektibo  
lantzeko eta ebaluatzeko oso artikulu  
baliagarria.



**“Sociología y práctica educa-  
tiva”, Cultura y educación 17-  
18, 2000, 105-204 orr.**

Monografikoaren helburua zera  
da: Hezkuntzaren soziologiaren erai-  
kuntzaren garapenaren ikuspegi zaba-  
la eta laburtua ematea.

Bertan aurki ditzakegu azalpen  
teorikoak eta Estatu mailan egiten ari  
diren hainbat ikerketa eta esperientzia.

Pedagogia kritikoarekiko interesa  
dutenentzat ekarpen polita.



**ROSELLÓ, J.: “La escritura de  
diarios”, Textos 25, julio-sep-  
tiembre 2000, 105-113 orr.**

Artikuluaren autorearen ustez, tes-  
tu autobiografikoa bide zoragarria da  
klaseetan idazmena lantzeko.

Ikaslea, batez ere adolezentea, gai  
pertsonek idatzi dezakeelako oso  
libre eta oso motibatua sentitzen da;  
eta irakasleak oso lan funtzionala egi-  
ten du, idazketa eta aldi berean gogo-  
eta ari delako bultzatzen.

Gainera, Roselloren ustez, une  
honetan autobiografia erreferentzi lite-  
rario ugari aurkitu dezakegu eta eredu  
gisa erabili.

Artikuluaren interesgarria batez ere  
Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.



**PÉREZ, C.: “Educación para  
la convivencia. Programa de  
intervención para educación  
infantil”. Aula 92, junio 2000,  
p.83-97**

Delorsek koordinatu zuen *Hezkun-  
tza: altxor ezkutua* informean ager-  
tzen den “Elkar bizitzen ikasi, bestee-  
kin batera bizitzen ikasi” ardatzari  
erantzuna emateko material didaktiko  
baliagarria gure aurrean daukaguna.

Haur Hezkuntzara zuzendutako  
programa hau irakasleentzat. prakti-  
koa eta erabilgarria izan dezake

# Gai monografikoa

## Irteerak, eskola eta in



*Antzuolako Herri Ikastetxea*



# Ingurunea lotzeko bideak

**I**rteeraz dihardugunean eskolatik kanpo egiten diren jarduera hezi-garriaz hitz egiten ari gara. Sarritan “denbora pasa” une batekin identifikatzen ez ote den pentsatzen bada ere, ez dugu uste horrek horrela izen behar duenik. Aitzitik, zera egin behar litzateke, alegia, jarduera horiek duten baliagarritasun didaktikoa estimatu eta, ondorioz, ikasleen hezkuntza-prozesuan duten tokian kokatu eta duten pisua neurtu.

Eskolaren xede nagusia haurrek dituzten hezkuntza-beharrak diagnostikatzeta eta horiek erantzutea da. Ondorioz, eskolak dauden tresna eta baliabide guztiak jarri behar ditu haurraren heziketa integrala ziurtatzeko. Irakaskuntzan ari garen guztiok argi izan behar dugu egiten ditugun hezkuntza-jardueren planifikazioen zergatia eta zeregina.

Eskola-irteerak oso aberatsak dira, besteak beste, ikasleen nahi eta interesekin guztiz lotzen direlako eta haurrak egunerokotasunarekin harremanetan jartzen dituztelako. Halaber, eskola-irteerek aukera paregabea eskaintzen dute gelan gara daitezkeen gaitasunez gain beste batzuk lantzeko. Hala nola, fenomeno fisikoen behaketa, bizi izandako egoera desberdinen balorazioa edota gizarte-arazo batzuekiko sentiberatasuna. Arrazoi horiengatik, ezin

dira irteerak –estrategia didaktiko nahiz baliabide didaktiko diren neurrian– baztertu hezkuntza jarduerak planifikatzerakoan.

Ez ditugu irteerak naturaren ikus-puntuarekin bakarrik egingo. Ingurunea hobeto ulertzeko elementu fisiko edo naturalez gain, kontutan hartu behar direlako ikuspegi kulturala, historikoa edota ekonomikoa ere. Eta, jakina, irteera bat planifikatutako programa baten barruan egon beharko da.

Monografiko honetan, bada, eskola-irteeren munduarekin bat egin nahian, aldizkarian barrena sartzeko gonbitea egiten dizugu.

Bertan, lehenik eta behin, irteerak planifikatzeko kontuan hartu behar diren elementuak aztertuko dira (ingurunea, ikasleak, ikastetxea...). Jarraian, ibilbide gidatuen ezaugarriez eta horien potentzialtasun didaktikoaz hausnartzeko parada izango dugu. Ondorengo artikuluetan, egun toki askotan zabaldutako ekipamenduak (museo-eskolak, parke tematikoak, natur eskolak...) ezagutu eta hezkuntza-prozesuan jokatzen duten paperaz hausnartuko da. Azkenik, gaian sakontzeko baliagarriak izan daitezkeen aipamen bibliografikoak ere egiten dira.

la gai zaren, irakurle, monografikoan zehar zure neurriko ibilbidea topatzeko. Ondo ibili!



# Bibliografia

• **OLVERA, F. (1989): *La investigación del medio en la escuela*. Ed. Penthalon, Madrid.**

Duela urte batzuk argitaratutako liburua dugu Francisco Olvera irakasleak idatzitakoa. Ikasleen produktioez baliatuz, ingurunearen azterketa aurkezten digu, edo, berak azpimarratzen duen modura, ingurunearen ikerketari buruzko hausnarketa interesgarri bat. Liburuaren lehen ataletan azaltzen digu nola ulertzen duen ikerketa haurrak eskolaratzeko lehen urteetan (Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan). Ondoren, zenbait adibide aurkezten dizkigu ikerketa inguruneari aplikatzeko kontuan hartu beharrekoak eta horren lekuko izan daitezkeenak. Liburuaren sarrera antologikoa da.



• **WASS, S. (1992): *Salidas escolares y trabajo de campo en la educación primaria*. MEC, Ed. Morata, Madrid.**

Jakingarriaren monografikoarekin guztiz bat datorren liburua dugu honako hau. Irteerak planifikatzeko kontuan hartu beharreko faktore guztiei edo gehienei buruzko hausnarketak planteatzen dira: irakasleak jakin beharrekoak, irteeren aurreko lanen zergatia eta prestaketa, irteera egiteko eta ondorengo jardueretarako proposamenak... Beste kapitulu interesgarri bat ere bada: gertaera baten azterketaren metodologiari buruzko aipamenak egiten ditu, nahiz eta kapituluaz aztertzen den gertaera beste ingurune batean kokatua izan.



• **NADAL, M Y PUJOL, J. (1983): *El medi a l'escola. Elements per a una recerca*. Ed. Graó, col. Guix nº 6, Barcelona**

Margarida Nadal eta Jordi Pujol-en liburu hau erdarara ere itzulita dago. Hala ere, orri hauetan aurkezten ari garena lehen bertsioa da, katalanez argitaratutakoa. Liburu honen balioa bere alderdi didaktikoan egon daiteke batez ere. Gai bat aztertzeke egin behar den planifikazioari buruzko zenbait pista aurkituko dugu, besteak beste, nola antolatu informazioaren bilketa edo ze tresna erabil dezakegun ingurunearen behaketa egiteko. Bestalde, hausnarketa interesgarriak egiten dira irteerak antolatzerakoan kontuan hartu beharreko hainbat faktoreren inguruan. Eskolako liburutegian izan beharreko liburua da.



• **NOVO, Mª (1996): *La educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas*. Ed. Universitas, Madrid.**

Ingurunearen ezagutzaz ardura edo jakin-mina duen edozeinarentzat nahitaezko erreferentzia da. Ingurumenaren Heziketaren ikuspuntutik edo dimentsiotik idatzita dago liburua, beraz, ingurunea aztertzeke beste ikuspegi bat aurkezten zaigu. Lehen kapituluetan, Ingurunearen Heziketaren historia kontatzen digu. Ondorengoetan, ingurunea aztertzeke kontuan hartu behar diren hiru dimentsioez ari zaigu Maria Novo, hots, dimentsio etikoz, kontzeptualaz eta metodologikoz. Hiru dimentsio horien integrazioa ezinbestekoa da ingurunearen azterketa egiterakoan. Behin baino gehiagotan erabiltzeke liburua da, beraz, esku izaten ahalegindu behar.



• **BATZUK (1994): *Educació Primària. Coneixemen del medi: social i cultural. Generalitat de Catalunya, Barcelona*.**

Katalanez idatzitako beste liburu bat aurkezten dugu atal honetan. Bertan, Ingurunearen Ezaguera arloko curriculumean aipatzen diren hainbat gairen inguruko jarduerak aurkituko ditugu. Besteak beste, honako gaiak lantzen dira: espazioaren adierazpena eta interpretazioa, erliebea, denboraren noziora hurbiltzeke jarduerak eta paisaiaren irakurketak egiteke jarduerak. Gainera, jarduerak sekuentzia bat jarraitzen dute, Lehen Hezkuntzako ziklo guztietara egokituko dena. Ingurunearen Ezaguera lantzen ari den edozein irakaslerentzat oso erabilgarria da liburua, beraz, ikastetxearen liburutegiko fitxategian topatzeko modukoa.



• **SOUTO GONZÁLEZ, M. X. (1998): *Didáctica de la Geografía. Problemas sociales y conocimiento del medio*. Ediciones del Sebarl, Colección "La estrella polar" nº 11, Barcelona.**

Liburu honek zera du helburu nagusitzat, alegia, geografia-ekin lotutako azken ikuspuntu pedagogiko eta didaktikoa irakasleari aurkeztea. Lau zatitan banatuta dago. Lehen zatian, geografiaren irakaskuntza aurkezten da eskola eta institutuetan eta azken urteetako erreformatan zientzia horrek izan duen presentzia aztertzen du; aldi berean, testu-liburuak aztertu eta saiatzten da azaltzen irakasle eta ikasleek ze iritzi duten ikasgai horrekiko. Bigarren zatian, proposamen didaktikoa batzuk egiten ditu XXI. mendera begira, horretarako metodologia, estra-

# Bibliografia

tegiak, prozedurak eta ebaluaketa aintzakotzat hartuz. Hirugarren zatian, geografiaren sekuentzia bat aurkezten du adin desberdinetara egokituta (6 urtetik 18ra). Eta bukatzeko, laugarren batean, errebindikatu nahi du geografia ez dela zientzia hil bat, eta horretarako hausnarketa bat eskaintzen du beste herrialde batzuetan egindakoaz. Beraz, oso liburu interesgarria da testu-guru teorikoan eta adibide praktikoan bila dabilenarentzat. Eta pa guztientzat aproposa.

• **PLUCKROSE, H. (1993): *Enseñanza y Aprendizaje de la Historia*. Ediciones Morata, S.L. Ministerio de Educación y Ciencia. Colección Pedagogía: Educación infantil y primaria, Barcelona.**

Lehen hezkuntzari zuzendutako liburua. Historiari gaur egun beheko etapetan duen garrantzia baino gehiago eman nahi dionak, hona hemen irakurri edo kontsultatu beharreko liburua. Historiaz hitz egiten denean, jakina, ez da kontzeptuetan soilik oinarritu behar, baita pentsamendu historikoaren baitan dauden hainbat elementutan ere. Alegia, kronologia, aldaketa eta jarraipena, eragileak eta ondorioak, erritmoak, aldiberekotasuna, enpatia... gogoan izan behar dira. Horiek lantzeko ereduak nahi dituenarentzat, hau da liburu aproposa.

• **BALE, J. (1989): *Didáctica de la Geografía en la Escuela Primaria*. MEC, Morata, Barcelona.**

Lehen hezkuntzari zuzendutako liburua da. Jakina da inguruneak haurrengan duen eragina. Abiapuntu ederra da inguru horrekiko interesa sortzeko eta horren eraldaketaren mekanismoak zeintzuk izan diren identifikatzeko eta ulertzeko. Kapitululu esanguratsuak ditu, esperimentazioan oinarritutakoak: trebetasun kartografikoak, norberaren herria lantzeko estrategiak, norberarena ez den herriak aztertze dauden arazoak, gelan egindako errekurso eta jardueren aurkezpena eta ikasgaiari egituratze logiko bat emateko irizpideak.

• **ORDEIX, L. y SANTACANA, J. (1993): *El Patrimonio artístico i cultural*. Collecció Guix 16. Graó editorial, Barcelona.**

Lehen eta derrigorrezko bigarren etapari zuzendutako liburu praktikoa honetan, eta ondare artistiko eta kulturala ardatz harturik, hainbat unitate didaktiko diseinatzeko adibideak daude.

Ondare mota horrek etapa desberdinetan duen presentzia azterturik, eredu batzuk plazaratzen ditu elementu artistiko, historiko edo kulturalarekin lotuta. Interesgarria da kontsultatzeko, beraz, hutsetik abiatu nahi ez bada. Adibideak norberaren herri-egoki daitezke.

• **IBER, *Didáctica de las CC.SS. Geografía e Historia*:**

• *El patrimonio histórico-artístico*. Iber nº 2, Graó Educación, Octubre 1994.

• *Los procedimientos en la historia* nº 1, Graó Educación, Julio 1994.

• *La ciudad: didáctica del medio urbano* nº 3, Graó Educación, Enero 1995.

• *Métodos y técnicas de la didáctica de la geografía* nº 9. Graó Educación, Julio 1996.

Dagoeneko ezaguna dugu bilduma hau. Hainbat ale daude eta hemen daude lekuko batzuk. Irteerak eta baliabideak aintzakotzat harturik, proposamen ugari aurkezten ditu. Egitura bera dute: sarrera teoriko batekin abiatzen dira eta hainbat esperientzia aurkezten dituzte. Derrigorrez kontsultatu beharreko bilduma, beraz.

• **TREPAT, C. (1995): *Procedimientos en Historia. Un punto de vista didáctico. Materiales para la innovación educativa*. ICE, Editorial GRAÓ, Barcelona.**

Hasierako etapatik derrigorrezko bigarren hezkuntzaraino da egokia. Historia ardatz izanik, prozeduretan oinarritutako liburua da. Aldi berean, adibide bakoitzaren sekuentzializazioa, teknikak, helburuak, jarduerekin loturiko adibideak... eskaintzen ditu. Bi zatitan aurkezten da materiala: lehenengoan, testuinguru historikoarekin bat eginda, prozedurekin loturiko sekuentzializazioa, irakaste-ikastea eta ebaluazioa azaltzen dira. Bigarrenean, hainbat adibide jorratzen ditu: lehen eta bigarren mailako informazio-iturrien erabilera, azalpenak eta enpatia, hiztegia eta informazioaren komunikazioa.

## Eskola-irteerak: “Ibilaldi

**D**errigorrezko hezkuntzarako Administra-  
zioak proposaturiko helburu nagusien irakurketa laster batek erakusten du zer garrantzi ematen zaion, besteak beste, errealitatea aztertu eta behatzeari eta berorrek in harremanetan egoteari. Bide eta baliabide askok ematen diote aukera ikasleari bera bizi deneko ingurunea, eta urrutirago dauden beste testuinguru batzuk, ezagutzera hurbiltzeko. Edonola ere, ingurura egindako eskola-irteerak dira, agian, horretarako estrategia didaktiko eraginkorrenetako bat.

Ikasgelatik kanpora egiten diren eta inguruko baliabideak aprobetxatzen dituzten ekintza guztiak hartzen ditugu eskola-irteeratzat. Herriko museora joatea, ibilaldi pedagogiko bat egitea edo landa-lana dira eskola-irteeratzat har ditzakegun ekintzetako batzuk.

Eskola-irteerak dituzten aukera eta mugapenei buruz gogoeta egiteko, eta metaforikoki hitz eginez, ibilaldi gidatu bat egingo dugu, hainbat geraldirekin. Geraldí hauetan irteeren diseinu eta plangintzan eragina duten faktoreak aztertuko ditugu.

Eskola-irteerak ikuspegi didaktikotik aztertzerakoan, besteak beste, ondorengo elementuak hartu behar dira kontuan: ikasleak, irakasleak, eskola-antolaketa, ingurunea eta honek eskaintzen dituen baliabide didaktikoak, eta irteera horietan egingo diren ekintzak. Elementu hauek osatzen dute ondoren zertuko dugun ibilbidea, eta horretarako ez dugu ekipamendu berezirik behar. Egoera erosoan testuaren irakurketa arretatsua egitea, ez dugu beste-rik behar. Beraz, abia gaitezen.

### 1. GERALDIA: Ikasleak

Ikasleak gelatik ateratzean, benetako esperientziekin jartzen ditugu harremanetan, horiei beren sormenez erantzungo dietelarik, dudarik gabe. Beren garapena bultzatzeko beste modu bat da, baina, gainera, ikasgelatik irteerak trebetasun berezi batzuk lantzeko aukera ematen du, gela barruan nekez garatu litezkeenak. Adibidez, egune-

roko fenomenoek behatzea, inguruko ezaugarrien azterketa edota ingurune elementuen (fisikoen, naturalen, sozialen...) artean ematen diren elkarreragin asko ulertzea, ingurunera egindako irteeren bidez garatu edo aberas daitzkeen gaitasunetako batzuk dira.

Gure ikasleek ikusi, ukitu, usaindu, entzun edo, kasu batzuetan, dastatu egin behar dituzte inguruan dauden ele-



*Antzuolako Herri Ikastetxea*

# “i gidatua” gai honetan zehar

**Xabier Arregi Murgiondo**

Biologoa, HUHEZI ko irakaslea

mentuak, hobeto ulertu eta balioztatzeko. Ez da gauza bera landare bat ikasgelan edo laborategian aztertzea, edota hori berez dagokion lekuan bertan egitea. Era berean, ez da zaila izango gure herriko administrazio-antolaketa aztertzeo ikasleak motibatzea, udaletxera bisita antolatzen badugu, eta eurei interesatzen zaizkien arazo guztiak planteatzeko aukera eskaintzen badiegu.



Irteerek ingurunea eta horrek eskaintzen dizkigun baliabideak ikusteko aukera emango digute, guztiok, gehixeago edo gutxiago, “irakur” dezakegun eta irakurri behar dugun “liburu” trinko bat baita ingurunea. Beraz, alde batetik, tresna eta estrategia erabilgarriak garatu eta aplikatu behar ditugu, testuinguru horiekin zerikusia duten *gaietan* eta *gaiei* buruz behar hainbat informazio bildu eta tratatzen lagun diezaguten. Baina, bestalde, gaiari buruz ikasleek zer sentitzen, dakiten eta pentsatzen duten ere ikertu beharko da, *aurre-tiazko ezagupen* hauek, zalantzarik gabe, eragina baitute bisitaturiko errealitatea ulertzeko moduan.

Azken batean, eskola-irteerek ingurune edo testuinguruarekin elkarreragitea ahalbidetu behar diete ikasleei, zentzu hezitzailearekin, hau da, dauzkaten ezagupenetatik abiatuz ezagupen berriak eraikiz. Zeregin horretan funtsezko papera jokatzen dute irakasleek, hauek direlarik ibilbidean egingo dugun hurrengo geraldia helburu.

## II. GERALDIA. Irakasleak

Irakaskuntza eta ikaskuntzako beste edozein prozesutan bezala, irakasleak funtsezko papera jokatzen du hor, bai prozesua bideratuz, bai beharrezko baliabideak eskainiz, bai datuak eta argibideak emanez. Aurreko geraldian “behatu” ahal izan dugun bezala, ikasleek ingurunea irakurtzen ikasteko premia dute, horregatik irakasleek premia hori asetzeko behar hainbat ezagupen eta trebetasun lortu behar dute.

Bestalde, curriculumaren zenbait alde era interesgarri eta sortzailean garatzeak ematen duen asetasun eta pozaz ohartu behar dugu irakasleok. Irteera horiek aukera ematen diote irakasleari bere lana ingurune berrietan egiteko eta, kasurik gehienetan, ingurune erakargarrietan, gainera. Bestalde, eskola-irteerek datu berriak lortzeko aukera ematen digute, taldeak eta ikasle bakoitzak gelatik kanpo nola jokatzen duen jakiteko. Azkenik, esan daiteke irteera horiek mesedegarri direla bai irakasle eta ikasleen arteko eta bai ikasleen euren arteko harremanetarako.

# Gai monografikoa

Nolanahi ere, irteerak antolatzeko egin beharreko lana kudeatzeak oztopo asko gainditzea esan nahi du, ekonomiko nahiz sozialak edo beste era batekoak, kasu askotan irakaslearekin berarekin zerikusirik ez dutenak. Beraz, oztopo pertsonalak, behintzat, saihesten saiatu beharko genuke, eta ez horiek gehitu irakasleak lan egiten duen lekuaren arabera topa ditzakeen arazoei.

## III. GERALDIA.

### Ikastetxea

Ibilaldiak ia zuzen-zuzenean, eta horretan “erliebeak” batere eraginik izan gabe, hurrengo geraldia edo hausnarketa-puntura garamatza: ikastetxera, alegia.

Irteerak egitea, neurri handi batean, ikastetxeak jar ditzakeen mugapenen arabera dago. Ikastetxearen koka-pena, aurrekontua, irteerei dagozkien arrisku fisikoak eta erantzukizunak banatzea... dira irteerak egitea ahalbidetu edo eragotziko duten faktore baldintzatzaile batzuk.

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua da ikastetxea antolatzeko tresna nagusia. Dokumentu horrek jaso beharko lituzke, besteak beste, ekintzak “in situ” eginez errealitatearen zenbait alderdi ezagutzearen garrantzia

azpimarratuko duten printzipioak. Printzipio horien aplikazio egokiak eta ikastetxeak bere antolaketarako dituen departamentuen arteko koordinazio onak, hezkuntza-etapa bakoitzean irteerak egiteko formula egokiak aurkitzea ekarriko du.

Bestalde, ez da ahaztu behar ikasleen gurasoekin ohiko komunikazio-bideak erabili beharra ikasgelatik kanpo ekintzak egitearen garrantzia uler dezaten, eta ikastetxearekin eta irakasleekin batera ekintza horien ardura beren gain har dezaten.

Azkenik, gogoratu behar da gaur egun hainbat administrazio-tresna dagoela honelako ekintzetarako dirua eta laguntzak lortzeko. Beraz, ikastetxeak informazioa bildu eta beharrezko gestioak egitea komeni da.

Maria Novok dioen bezala, “eskolak bere barne-dinamika garatu behar du bere inguruko lurraldeari dagokionez. Are gehiago, ikastetxeak ezin dira portatu <uharte> gisa beren lurraldean, baizik eta, alderantziz, inguruko gizarte- eta kultur errealitatearen benetako <nodo> dinamizatzaile bihurtu behar dute”.

Idea horretatik dator gure ingurunea ezagutu beharra, ikuspegi didaktikotik berorren gaitasunak erabiltzeko. Hau izango da hurrengo geraldia gure ibilbide berezi honetan.



*Antzuolako Herri Ikastetxea*

## IV. GERALDIA: Ingurunea eta baliabideak

Gure inguruneak baliabide asko eskaintzen ditu bisitatu eta aztertu ahal izateko. Beraz, gure ibilbidean beste geraldia bat egitea komeni da, alderdi hau zehatz-mehatz aztertzeko.

Alde batetik, irteerak planifikatzerakoan eskura ditugun ekipamenduen eskaintza aztertu beharko litzateke: natur eskolak, museoak, interpretazio-zentroak, parke tematikoak... Bestalde, ingurunean berezkoak diren gune edo lekuak ere kontuan izan behar dira: istil edo urmaelak, eraikin bereziak, jolaserako parkeak edo herria zeharkatzen duen ibaiak.

Ekipamenduei dagokienez, askotarikoak dira gaur egun, bai tematikari eta bai beren helburuei dagokienez. Guztiek eskaintzen dizkiete bisitariari hainbat baliabide (panelak, multimedia-programak, jolasak, ibilbideak...) eta laguntza-aren bat, didaktikoki aprobeitza daitezkeenak iraupen desberdinetako programen bidez. Ekipamendu hauetara irteerak planifikatzeak zera eskatzen du: horien proposamenak ahalik eta zehazkien ezagutzea ikasgelako programazioan behar bezala txertatzeko.

Berezko lekuei buruz, zerrenda mugagabea dela esan daiteke. Leku horietara egiten diren irteerak landa-irteeratzat jotzen dira normalean. Nolanahi ere, termino horrek ezin diezaguke pentsarazi irteera horiek natur inguruneetan (gaur egun ia batere ez dago) edo landa-inguruneetan soilik egin behar direla, hiri-inguruneek ere baliabide aberats eta askotarikoak eskaintzen dizkigute eta. Hala ere, egia da hiri-giroetan landa-lana egiteak bere zailtasun eta arriskuak dituela. Leku horietara irteerak planifikatzeak eskola-ingurunearen azterketa sakona eskatzen du, zalantzarik gabe, gaitasun didaktiko handiena eta arrisku txikiena dutenak aukeratzeko.

Bai ekipamenduek eta bai berezko naturguneek, aipaturiko eragozpen horiek gaindituz gero, didaktikoki aprobeitatzeko aukera asko eskaintzen digute, irteeren planifikazioa egokian oinarrituz. Nolanahi ere, bada erantzun beharreko oinarritzko galdera bat: zertarako egin behar ditugu irteerak? Agian, aurkituko dugu erantzuna gure ibilbideari jarraituz.

## V. GERALDIA: Ekintzak

“Hain sarri aipatzen da hezkuntzak bizitzarako prestatu behar duela jendea, ezen batzuetan badirudi helburu hori, enuntziatu eta errepikatzearen poderioz, jada bete dela”.



**Antzuolako Herri Ikastetxea**

Edozein ikastetxeren hezkuntza-proiektuak jasotzen du helburu hori, zalantzarik gabe. Nolanahi ere, ez al da egia ikastetxe gehienek “sistema itxiak” balira bezala dihardutela?

Egia da ikastetxeetan “gehienetan bere barrutik irten gabe begietsi, sailkatu eta ebaluatzen dela kultura”. Ikasleek azalpen asko hartzen dituzte, prozedura ugari garatzen dituzte eta, batzuetan, eguneroko bizitzari buruz dituzten balioez hausnarketa ere egiten dute, baina, normalean, gelako lau paretan artean. Baina “bizitza ez da zerbait abstraktua. Bizitza gu gara eta inguratzen gaituena: dena batera, etengabeko elkarrekintzan”. Beraz, “bizitzarako hezitzea bizitzatik bakarrik egin daiteke, pertsonaren inguruko errealitatekin”.

Nahiz eta ez den artikulu honen helburua irteeretan egin beharreko ekintzen ezaugarriak zehaztea, interesgarria da horiek planifikatzeko lagungarri gerta dakizkigukeen estrategia batzuk aipatzea. Hainbat testuingurutara bisitak egiteak ondorengoak garatzeko aukera ematen du (CARIDE, 1990):

- *Esplorazio-ekintzak*: partaideak testuinguru bisitatu sartzeko.
- *Deskribapen-ekintzak*: testuinguru zenbait tasun hautematera zuzenduak.
- *Esplikazio-ekintzak*: bisitaturiko testuinguruan zertzen diren prozesu batzuk “azaltzera” bideratuak.
- *Ulerkuntza-ekintzak*: errealitatearen zentzua eta esanahia bilatzera zuzenduak.

Aipaturiko ekintza horietako batzuk planifikatzerakoan, ezinbestekoa da kontuan izatea bisitaturiko edozein testuinguru zatien multzo antolatu bat dela. Hori ezagutzeko, ez da aski bere zatien deskribapen hutsa egitea. Funtsezkoa da, halaber, horien arteko erlazioak interpretatzea.

Zentzu horretan planteatu da burutu dugun ibilaldia. Ezin da irteera bat planifikatu kontuan izan gabe geraldietako bakoitzean dauden alderdi guztiak. Errealitatean gertatzen den bezala, behatzen dugun paisaiak, normalean, aniztasun handia eta erlazio anitzak ditu. Perspektiba hori berori agertzen zaigu eskola-irteerei buruz hausnarketa egiterakoan ere.



**Antzuolako Herri Ikastetxea**

## Bibliografia

WASS, S. (1992). *Salidas escolares y trabajo de campo en la educación primaria*. Madril. Morata.

NOVO, M<sup>a</sup> (1996). *La educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas*. Madril. Universitas.

CARIDE, J. A. (1990). *El análisis de contextos en educación ambiental*. Madril. Fundación Universidad Empresa.



# Ondare kulturala (Ondare historiko-artistikoa)

**Iñigo Ramirez de Okariz Telleria**

HUHEZIKo Gizarte Zientzietako Irakaslea

**I**rakaskuntza eta hezkuntza mailan oso ezaguna da ibilbide didaktikoen baliabidea, gizarte zientzia arloan batez ere. Irakasle gutxi egongo da ikustaldi bat, irteera bat edota behaketa bat gelatik kanpo egin ez duenik. Eta paradoxikoa izan badaiteke ere, baliabide horren inguruan dugun ezagutza didaktikoa urria eta nahasia da. Alegia, irteerak irakasleriaren artean ezagunak dira, baina desberdin baloratu eta ulertzen dira. Baina irteerak non aplikatu? Ba ote dago curriculum barruan arloren bat irteerak egiteko?

Haur eta Lehen Hezkuntzari begirada azkar bat eman besterik ez dago bertan INGURUNEA hitza edo kontzeptua zein erabilia den ikusteko. Hots, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, “ingurune hurbiletik abiatuz” edota “umeak ingurunea ezagutu behar du” bezalako esaldiak ezagunak dira denontzat. Jakina, aipamenak are eta gehiago izaten dira INGURUNE EZAGUTZA bezalako arloetan. Bertan hautematen da ingurunea oso kontzeptu zabala dela, eremu fisiko soziala, naturala eta kulturala baitira bertako osagarri nagusiak. Eta guztietatik, azkenari, kulturala deitzen zaionari, egingo diogu jaramon eta hainbat irizpide finkatuko ditugu.

## GELA IREKI

Denok dakigun bezala, gelan irteera bat planteatzen denean, umearen erreakzioa baikorra izaten da. Berehala presatatu eta egiteko prest egoten da. Pasatzen dena zera da, alegia, guri (irakasleoi) interesatzen zaizkigun aspektuak sarritan ez datozela bat eurenekin, euren interesak batez ere kanporatze horren baitan dagoen zentzu ludikoarekin, jolasarekin, lotuagoak daudelako. Dena dela, ez dezagun azken hori baztertu, jolasa bera abiapuntu interesgarria baita. Bakotzaren interesak kanporatzea ongi dago, egin eta gero konaturatzen garelako horrek duen funtzionaltasunaz.

## PLANIFIKATU BEHARRA

Jakina, irteera bat egiten dugunean –irteerak berak ekarpen sozial afektibo garrantzitsuak helarazten badizkigu ere–, beti azalekoa izango da, eta batzuetan baita faltsua ere, baldin eta irteera horri ez badiogu aplikatzen metodologia zehatza edo eta leku, egoitza... zehatzak aukeratzen ez badira.

## ZERTARAKO IRTEN

Erantzun asko duen galdera dugu honako hau. Baina irteera bat planifikatzen dugunean, gai bati sarrera eman nahi



Oñati



**Euskal Jaia. Oñati.**

izaten diogulako egiten dugu, aztertzen ari garena sendotu edota eman duguna ebaluatu nahi dugulako. Antzeman daitkeen bezala, bada, eremu zabal bakoitzak programazio propioa eskatzen du irakaslearen aldetik. Hala ere, ezin dugu ahaztu irteerak ere baliagarriak direla: kontzeptuak bere inguruan kontestualizatuta ikasteko, gaitasunak garatzeko eta baloreak bultzatzeko.

- **Irteerak baliagarriak dira kontzeptuak ikasteko.** Kontzeptu argi barik, terminologia zehatz barik ez dago ikasketa posible. Alegia, behaketa eta esperimentazio zuzenari esker hobeto lortzen dira fenomeno arteko harremanak, eta, beraz, kontzeptuen ulermena.
- **Irteerak baliagarriak dira gaitasunak garatzeko.** Gaitasun motrizak, mentalak, instrumentalak... besteak beste. Zehatzago esanda, interpretatzen, biltzen, elaboratzen, behatzen, tresnak erabiltzen, bildumak egiten, txostenak idazten... jakin behar dute.
- **Irteerak baliagarriak dira baloreak bultzatzeko.** Baloreena elementu berriena dugu etapa guztietan. Baloreak praktikaren bidez sustatzen eta eskuratzen dira. Irakasle-ikasle eta ikasle-ikasle arteko interakzioaren bidez hainbat eduki lortzen badira, baloreak irteerak egiterakoan ere lantzen dira. Noiz? Irteerak berak dituen une desberdinetan: irteera-egunean, autobusean, bazkarian, lanean... Beraz, gela barneko itxitasuna apurteaz gain, irteerak konfiantzazko eta askatasunezko giroa sortzen du denongan. Eta ez hori soilik; solidaritatea, lagunkidetasuna eta kolaborazioa ere bultzatzen ditu, eta marginazioa eta bazterketa –sarritan gertatzen ohi direnak– alboratzen. Eta hori da hezkuntza-prozesu batean egon behar litzatekeen giroa.

Eta beste gauza garrantzitsu bat ere badago: taldeko giroa bizi bada ere, pertsona bakoitzarekin loturiko inizatiba,

balore estatikoen garapena (baita balore emozionalena ere), sorkuntza... ere bultzatzen dira.

## ONDARE KULTURALA DEFINITU

Entzuna da ingurune batek bere baitan bi ondare dituela: naturala eta kulturala. Azken urteetan, hala ere, ingurugiroarekin loturiko gaiak, edukiak eta proposamen didaktikoak izan dira batez ere hezkuntza munduan gehien landu izan direnak. Ondare kulturala, berriz, eta bere barnean ondare historiko artistikoak, ez du horrenbesteko garapenik izan.

Beraz, helburua izango litzateke azken alderdi ezezagunago hori garatuz, eskuratzea gizatalde desberdinek mende mende garatzen joan diren bizipen eta esperientzia estetikoak. Izan ere, ondare historiko artistikoaren bitartez, denboran zehar zibilizazio, kultura eta gizatalde desberdinen ezaugarriak kontestualiza baitaitezke.

Ondare mota hau, bada, lan, hondar (materialak ala ez) bilduma bat da, bere balore estetiko, historiko, sinboliko, linguistiko, tekniko, etnografiko eta abarren ikuspegitik gizarte bati bere orainean edo historian zehar zehazteko eta nor-tasun-ezaugarriak jartzeko baliagarria izateraino.

Hala ere, “*ondare handiak*” eta “*ondare txikiak*” bereiztu behar dira. Orain arte, adibide bat jarritz, ondare arkitektonikoarekin loturik, monasterioak, gazteluak, katedralak... izan dira aintzakotzat hartu izan direnak. Baina orain ez da horrela gertatzen, beste zenbait eredu txiki, baina agian motibagarriagoak, esanguratsukoak (errotak, zubiak, altzariak...) ondarearen zati garrantzitsu bihurtu direlako.



**Korpus eguna. Prozesioa.**

## ABANTAILAK ETA EKARPEN DIDAKTIKOAK

Hauexek dira justifikazioak:

1. Alde batetik ondo hurbiltzen da gertaera, kontzeptu eta sistema kontzeptualetara, baita ikasketa desberdinetara ere, alegia, diziplinarteko eta diziplina anitzeko ikasketetara: elementu teknikoetara (materialak...), soziologikoetara (antolaketa...), geografikoetara (espazioa...), historikoetara (gizar-tea...), estetikoetara (sentsazioak...).

2. Beste alde batetik, ona da prozedurak lantzeko, batez ere behaketa zuzenarekin eta landa-lanarekin: behaketa-gidak, eskemak eta krokisak egin, planoak diseinatu, neurriak hartu, argazkiak atera...

3. Eta aldi berean, abiapuntu ona da jarrerak, baloreak eta arauak jorratzeko ere, besteak beste, ondarearen kontserbazio egoeraz hausnartzeko, ondarea errekuperatzeko ekintzak antolatzeko...

Jakina, ondare historiko artistikoaren ezagutzak eta tratamenduak zehazpen maila desberdinak izan behar ditu, alegia, norberaren herriko eta eskualdeko ereduak nahiz nazioarteko esanguratsuenak ezagutu eta landu behar ditu.

## ONDARE KULTURALA CURRICULUM DISEINUAN

Zenbateko pisua du curriculumean ondareak? Lehen Hezkuntzarekin loturiko helburu orokorrekin bat eginda, zera ageri da bere seigarren atalean ondareari dagokionez: *“Inguru-nean ikus ditzakegun gizakiaren interbentzioen adierazpenak aztertu behar dira; bertan, KULTUR ONDAREAREN DEFENTSA, ERREKUPERAZIO ETA KONTSERBAZIO JARRERAK LANDUZ”*.

Dena dela, ez da ondare kulturalarekin lotuta helburu orokorretan azaltzen den erreferentzia bakarra; izan ere, edukietan ba omen dago atal bat, zazpigarrena hain zuzen ere, espresuki ondare kulturalarekin lotuta. Ikus dezagun atal horrek zer dioen sarreran eta zer ondorengo edukietan: *“Denboran zehar gizakiak utzitako aztarnen interpretazio, lekutze eta behaketa (harresiak, gazteluak, hirigune zaharrak, aztarna arkeologikoak, monumentuak, arte lanak, dokumentu historikoak eta abar), multzo honetan garrantzi handia duten prozedura mailako edukiak dira, eta bide batez denbora historikoaren kontzeptuaren antzema-ta progresioa ere erraztuko dute”*.

Irakaskuntza munduan, arlo desberdinetan kontzeptuen ulermen maila desberdina izaten da. Ba omen daude arlo batzuk kontzeptuak bereganatzeko berezko zailtasunak di-



**Errotagaina.**

tuztenak. Arlo soziokulturalean dauden espazioa eta denbora kontzeptuak dira agian berez bereganatzeko zailtasuna dutenak, eta progresio edo sekuentzia bat eskatzen dutenak. Denborari lotuta, adibidez, urtea, hamarkada, mendea, K.a., K.o.... Beraz, erreminta aproposa ere izan daiteke ondare historiko artistikoa denbora eta espazioa bezalako kontzeptu abstraktuak ulertzen hasteko. Baita, bide batez, arestian aipatutako kontzeptuek, denborarenak bereziki, beste arlo batzuekin duten erlazioa ulertzen hasteko ere, matematikarekin duena adibidez.

Joan gaitezen gertaera, kontzeptu eta printzipioen atalera, eta bertan ondarea ez da hartzen elementu estetiko plastiko soiltzat, baizik eta informazio iturrizat; alegia, interpretazio historikora iristeko elementutzat hartzen da.

Prozedurena, berriz, informazio-iturriaren aurkikuntzan, tratamenduan eta aplikazioan oinarrituta dago, eta bertan ereduak lekutzeari ematen dio garrantzia, espazio kontzeptuari, beraz.

Jarrera, balio eta arauen atalak zera dio zuzenki ondare kulturalaren inguruan: *“euskaletan ondare historiko artistikoaren kontserbazioa eta balorazioa”* omen dira lortu beharrekoak; baina *“iraganeko aztarnen balorazioak”* ere (historia berreraikitze modu gisa) bere pisua du eduki mota honetan.

Beraz, gure programazioetan baztertu ezin dugun elementua eta atala da ondare kulturalarena.

## Ibilbide gidatuak: Mikel del Re

Mikel del Reguero Oxinalde biologoa da, EHU'n lizentziatua. Ingurumen Hezkuntza eta ibilbide ekologikoak lantzen 1978an hasi zen EHUko Ekologia Tailerrean monitore gisa. 80ko urteetan landa-monitore izan zen Getxon (Bizkaia), bertan 4 ibilbide ekologiko antolatuz. 1984an ibilbide ekologikoei buruzko material didaktikoak prestatu zituen Eusko Jaurlaritzarentzat. 1985ean Burgosko La Tesla-ko baserri-eskolako ibilbide ekologikoei buruzko azterlan pedagogikoa burutu zuen, Gaztela-Leongo Juntak finantzatua. Pedagogiaren berrikuntzarako Adarra kolektiboarekin elkarlanean, Bizkaiko Ibilbide Ekologikoak argitaratu zuen. 1990ean Cuencan Beteta-ko arroilaren gidaliburu botanikoa egin zuen (Guía Botánica de la Hoz de Beteta), Kultura Ministerioak argitaratua. Irakasle-laguntzaile gisa, Eskoriatzako Irakasle Eskolan irakasten du. Prestakuntza-ikastaroak eman ditu CAR/COP eta Cep-etan ingurumen-gaiei buruz. 1994an Bizkaiko txirrindularientzat ibilbide ekologikoak egin zuen, Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratua. Azken urteotan, Naturgune Babestuetako hezkuntzan, interpretazio ekologikoan eta turismoan espezializatu da, eta 1995ean Ecoturismo liburua argitaratu zuen Bartzelonako Bosch argitaletxean. Duela gutxi, Mikel Valverde marrazkilariarekin batera, bi landa-gida eman ditu argitara: bat Bilbokoa eta bestea Urkiolako Natur Parkekoa, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak argitaratuak.

### 1. Esaguzu azkenaldi honetan non ibili zaren.

Egin dudan azken landa-ibilaldia Okabe mendian izan da, Pirinioen iparraldean, Irati oihanaren barrenean, GR 10 frantsesari jarraituz. Artzain-giroko paisaia da, edertasun handikoa, eta bertan pagadi eta izedi handien artean belardiak daude, mutur beltzeko ardi latxen bazkaleku. Bestalde, Okabetik hurbil, Ilarritako gune megalitikoak dago, eta han 20 cromlech baino gehiago, bista ikusgarriak dituen goi-ordoki batean kokatuta.

### 2. Garai honetan (udazken-neguan) Euskal Herriko txokoren batetik ibilaldiren bat egin behar bazenu, nora eramango gintuzkezu?

Aukera zabala da... baina bat hartu behar banu, pagadien kromatismoagatik, bistengatik eta hegaztiei beha egoteko aukeragatik, zera hartuko nuke: Orbaizetako Ola edo muni-zio-fabrika zaharretik Urkulu mendira doan ibilbidea; bertan izen bereko erromatar gotorlekuaren hondakinak daude, Done Jakueko bidetik eta Ibañetako mendatetik oso hurbil, han izan zelarik Orreagako gudu mitikoa ere.

### 3. Eta beste urte-sasoi batean?

Kontrastez, Bardeetara joango nintzateke, Nafarroaren hegoaldera. Udaberrian, oinez bisitatzeko, ehiza debekaturik duen Eguarats-eko eremua dago, eta hango mediterranean basoak (Aleppo pinua). Inguruan Pitillasko urmaela ikusiko nuke, Euskal Herriko hezegunerik onenetakoa, udaberrian bizi oparua duena.

### 4. Lekuren bat ezagutzera joaten zarenean, zertan jartzen duzu arretarik handiena?

Paisaia aldetik duen aniztasunean edo ekosistemen aberastasunean. Ihes egiten dut paisaia monotonoetatik. Jakina, horretarako biodibertsitate handiko paisaiak izan behar dute, eta ongi zaindu eta gordeak. Natur balio horien aberasgarri dira bertako ondare historikoa eta antropologikoa: baselizak, erromatarren garaiko eta Erdi Aroko galtzadak, monumentu megalitikoak, karobiak, ikaztobiak, arkitektura oparoko baserriak, zelden kastroak, etab.

### 5. Ingurunea aztertu edo ezagutzeko baliabide pedagogiko erabilienetako bat bertan egindako ibilaldi gidatuak izaten dira, baina zertarako erabiltzen dira?

Eskualde baten errealitate ekologikoa han bertan ezagutzeko bitarteko gisa erabiltzen dira. Zuzen-zuzenean flora, fauna eta gea ezagutzeko eta bizitzeko aukera ematen digu-

# guero Osinalderi elkarrizketa

Xabier Arregi Murgiondo

te. Pedagogia aktiboa da, ikas-arlo asko bateratzen dituen eta ingurunearen azterketa horrek Natura babesteko balioak sustatzen ditu. Ikaskuntza hori ez da adimen edo buru-maialakoa soilik, gorputzez edo maila fisikoan ere hartzen baitira ingurumen-hezkuntzaren balioak.

Baserri-eskualdeetan bertako nekazaritza-kultura aurkitu eta ikastea ibilaldi horien hezkuntza-helburuetan sartzen da.

## 6. Zein dira ingurunean egindako ibilbide on batek bete behar dituen ezaugarriak?

Hona hemen ezaugarri horietako batzuk:

- Garraio publikoa erraz iristeko moduko lekua izatea.
- Arrisku fisikorik gabekoa izatea.
- Laburra izatea (ez 5 kilometrokoa baino luzeagoa).
- Dibertsitate edo aniztasun ekologiko handi samarrekoa (5 ekosistema gutxienez).
- Ahal bada zirkularra izatea, eta ez joan-etorrikoa.
- Herri-jabetzakoa izatea.
- Inguruetan interpretazio-zentro edo naturgela bat izatea.
- Ondareari eta giza kulturari dagozkion osagaiak ere izatea (baselizak, baserriak...).
- Ikastetxeetatik urrutiegi ez egotea, garraio-kostuak ez garestitzeko eta joan-etorrietan denbora gehiegi ez emateko.
- Landa-koaderno idatzi bat izatea irakasle eta ikasleentzat.
- Gidari laguntzaileen zerbitzua ere izan dezake.
- Ibaiertzetik —edo bestela itsasertzetik— ibiltzea, edo horrelakoren bat zeharkatzea. Hidromoek edo ura duten paisaiak erakargarriagoak bihurtzen dituzte ibilbideak.
- Paisaia ulertzen lagunduko diguten behatokiak edo ikuspuntuak ere izan behar dituzte.
- Onenak ez dira aparteko paisaia bereziak, horien hauskortasunak ez baitu onartzen bisita masiborik. Beraz, baserri-paisaiak dira onenak, betiere paisaia eta ekologia aldetik nolabaiteko aniztasuna baldin badute.

## 8. Inguruneak eskaintzen dituen baliabide didaktikoetatik, zein azpimarratuko zenuke zuk ibilbideak taxutu eta prestatzerakoan?

Besteak beste, hona hemen nik aukeratzen ditudanetakoz batzuk:



- Hidromoak edo ura duten paisaiak (urmaelak, errekek...).
- Zuhaitz-aniztasuna: 10 espezie desberdin gutxienez.
- Ongi zaindu eta iraunarazitako heskaiak edo palaxuak.
- Baso helduak.
- Erraz identifikatzeko moduko haitz-azaleratzeak. Fosilak.
- Karobiak, ikatzobiak eta industriaurreko kulturaren beste aztarna batzuk.
- Begiratokiak edo ikuspuntuak: erraz igotzeko moduko muino edo mendixkak...
- Historia eta ondare-elementuak: baseliza erromaniakoak, erromatarren galtzadak eta Erdi Arokoak, zeltentzako kastroak, monumentu megalitikoak...
- Abeltzaintza aberatseko eskualdeak, bertako ganadua ikusteko aukera izateko: ardi latxak, Auritzeko



behorrak, basabehiak...

- Haitzuloak eta higadura karstikoaren beste elementu batzuk: dolina edo torkak, sima edo leizeak, poljeak, etab.
- Hegazti-ugaritasuna, ikusi eta behatu ahal izateko, batez ere hezeguneetan.
- Zenbait harkaitzen bakantasun geologikoa: granitoak edo ofitak.
- Oso ohikoak ez diren uztak: txakolina, etab.

## **9. Ibilbide horietan ingurunearen alde naturalak bakarrik azter daitezke, ala baita besterik ere, historia, teknologia edo artea, adibidez?**

Hori ibilbidearen hezkuntza-helburuen arabera dago. Badira ibilbide monotematikoak (botanikoak edo historikoak, adibidez), baina osoagoak dira paisaiaren, natural nahiz gizatiartuaren, ikuspegi osoa ematen dutenak. Gogoan izan jada Europan ez dagoela paisaia guztiz natural edo giza arrastorik gabekorik. Europako paisaia guztiak gizatiartuak dira. Beraz, horien azterketak beti du natur alde bat eta giza alde bat. Dena loturik dago, puzzle batean bezala. Ikuspegi holistiko edo globala da egokiena. Horrela, inguruko naturaren eta paisaiaren ikuspegi analitiko eta ez-osoa saihestuko dugu.

## **10. Eskola-ekintzen plangintza da, dudarik gabe, eginkizunik garrantzitsuenetakoa jakintza-arlo bat lantzerakoan. Zure ustez, nola sar daitezke ibilaldiak plangintza horretan?**

Hezkuntza-sistemaren ordutegi-zurruntasunak zaildu egiten du ibilaldiak eguneroko didaktikan txertatzea. Horregatik, agian, ona litzateke hilean behin egun bat instituzionalizatzea ikasgelatik kanpo ekintzak egiteko ordutegi bereziarekin. Eta, bestela, aste berde bat aukeratzea urtean behin, Frantzian bezala.

## **11. Zer-nolako trebetasunak lantzeko aukera ematen dute ibilaldiek?**

Oro har, Naturari beha egoteko trebetasuna. Zentzumenen pertzepzio-gaitasuna areagotu egiten da: ikusmena, usaimena, ukimena, entzumena, edo baita dastamena ere, basoko fruituak jaten badira. Zentzu estetikoak suspertzen da Naturaren edertasuna miresteke. Izaki bizidunak sailkatzen ere ikasten da. Laginketaren metodo zientifikoa ikasten da. Oroimena ere lantzen da, landare eta animalien izenak gogoratzeko. Kuantifikatzen ikasten da: pisatzen, neurtzen, haztatu edo ponderatzen. Gorputz- eta kirol-trebetasunak garatzen dira: hirietan oso ohikoak ez diren lur malkartsuetan ibiltzea, etab. Talde-dinamika indartzen du, eta ikaskuntzaren alde ludikoa. Ikasleak landa-tresna zientifikoez lan egiteko ohitura hartzen du. Jakin-mina eta berezko

ikaskuntza pizten ditu. Pentsaera enpirikoa eta holistikoa garatzen ditu.

## **12. Ingurunean egiten diren ibilaldietan, normalean, material idatzia egoten da. Zertarako erabiltzen da?**

Lan-koadernoak izaten dira, eta idatzi dituenarentzat lehenetsua duten gaietara bideratzen dute aurkitze-lana. Esperientziarik gabeko irakasleari Naturan mugitzen laguntzen diote. Ibilbidea instituzionalizatu eta ospea emateko ere balio dute.

## **13. Zer aholku emango zenioke ikasleentzako ibilaldi bat diseinatu nahi duen irakasleari?**

Asko ibiltzeko bere eskualdean, ibilbiderik egokiena aukeratzeko. Hori martxan jartzen pazientzia handiz jokatzeke, eta ikasleei irakasterakoan gogotsu jokatzeke, hauek Natura maitatu eta bertatik ikas dezaten, maisu ona baita bizitzen ikasteko.



# Hiri itinerarioak


## Iñigo Ramirez de Okariz Telleria

HUHEZIKo Gizarte Zientzietako Irakaslea

**H**ezkuntza-curriculumaren esparruan, ingurunea, ezagueraren objektu izanik, ikaskuntzaren elementu motibatzailea, jarduera-arloa eta baliabide indartzaile eta integratzailea da. Beraz, inguruneak han eta hemen hartzen dituen formak aprobeztatu beharko genituzke

eskaintzen dituen gaitasun eta aukerak lantzeko (Ikus azpiko laukia).

Hemen ingurune horrek hiri batean hartzen duen jitea aztertu nahi da, eta horretarako lehenik eta behin justifikazio epistemologikoa adieraziko dugu, baita, Arrasateko hiri ardatz harturik, hainbat praktika azalduko ere.



# Gai monografikoa

Noiznahi irakurri eta entzun dugu inguru hurbiletik abiatu behar dela umea *espazio* kontzeptu abstraktua bereganatuz joan dadin. Horretarako bere auzotik edo kaletik, herri edo hiritik hasiko da, espazio orokorragoak eta ezezagunagoak ere antzematen hasteko. Baina espazioa ez da, nolabait esateko, ulertu eta menderatu behar den espazio kartografiakoa bakarrik: giza ekintzen objektua ere bada.

Egun nagusitzen den espazioa hiritarra da: mende honen hasieran biztanleriaren %10 hiritarra omen zen, eta egun, berriz, %50etik gora. Euskal Herrian, berriz, euskaldunon %75 baino gehiago hiritarra da. Beraz, kopuru esanguratsuak dira hiriaren gaiaren beharra eskolan, gelan, justifikatzeko.

Are gehiago, hiria interesguneztat hartuko bagenu: giza zientzien hainbat diziplinak bertan bat egiteko aukera izango luke, eta diziplinartekotasuna gauzatuko litzateke. Eta, jakina, hori pedagogikoki interesgarria denik ezin ukatu.

Baina diziplinartekoa dela esaten denean, zer motatako diziplinekin egiten dugu bat?

• **HISTORIA:** Hiriaren morfologia denboran zehar nola aldatu den aztertuz, plano eta mapak erabiliz eta, bide batez, dagoen ondare kulturala jasoz.

• **GEOGRAFIA:** Hiri-paisaian oinarrituta, jasandako eraldaketen faktore demografiko, ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak aztertuz.

• **SOZIOLOGIA:** Hiri-espazioan bizi diren gizataldeen bizilekua da hiria: anitza eta mota askotakoa, zenbait unetan istilutsua, baina baita bakartia ere...

• **EKONOMIA:** Jarduera desberdinak azter daitezke: ekonomiko-finantziarioa, zerbitzuguneak...

• **POLITIKA:** Hiria udaletxe batetik gestionatzen da. Hala ere, funtzio mailatik begiratuta, une politiko bakoitzak bere berezitasunak ditu.

• **EKOLOGIA:** Ekosistema baten jabe da espazio hiritarra eta kutsadura arazo larriena daukana gainera.

• **ETNOLOGIA/ANTROPOLOGIA:** Hainbat usadio, ohitura, jarrera, balore, talderen biltokia da hiria.


• **INGENIARITZA, ARKITEKTURA, KOMUNIKAZIOA...**

*Esandakoaren arabera, hiria ikasgai bihurtzen da eta, horri esker, posible da hiriaren IRAGANA, ORAINA ETA GEROA aztertzea, diagnostikatzea eta hausnartzea (ikus azpiko laukia). Horretarako baliabide bat aukeratu behar izanez gero, behaketa zuzena izango litzateke baliabide egokiena aurkikuntza bidezko ikasketa lortzeko.*



**Arrasateko Udaletxea.**





## HIRI-EREDU BATEN AZTERKETA: ARRASATE

Orain adierazten den planteamendua lehen hezkuntzako azken ziklorako esperientzia bat da. Arestian azpimarratu diren hiri-gaietatik (geografia, historia, soziologia, politika...), hiri-historia aukeratu da: Arrasateko erdi aroko hiribildua eta hirigintza hartuko da interesgunetzat.

## ARRASATEKO INFORMAZIO GEOGRAFIKO-HISTORIKO LABURRA

Arrasate Gipuzkoako hego-mendebaldean dago, Deba eta Aramaio errekek haranaren sortzen duten gurutze-gunean. Itsasoaren mailatik 210 metrora dago eta 34 Km( ditu. Gaur egun, 25.000 biztanle ditu. Jarduera ekonomiko nagusizat industria du, eta lehen sektorea sinbolikoa besterik ez da. Industria barruan, kooperatibismoa bertan sortu zen, egun oso sistema hedatua han eta hemen.

Historiari begira, Gipuzkoako testuinguruarekin bat dator. Lehendabiziko datuek erdi arora eramaten gaituzte, 1260 urtean sortu baitzen Arrasate ordez Montdragon izena hartu zuen hiribildu berria. Ondorengo garaiek lehenik Karlistadetara eramango gaituzte eta ondoren 1897ra, Santa Ageda izeneko senda-etxean Angiolillo izeneko anarkistak Canovas del Castillo Espainiako gobernu-burua hil zuen garaira, alegia. XX. mendea, berriz, nahasia izan da, denetarik jasan behar izan du, inguruko herri askok bezala: gerra zibila, industrializazioa, etorkinak, krisialdi ekonomikoa, gatazka politikoak...

## LAN PROPOSAMENAK

Arestian aipatu dugun bezala, lehen hezkuntzako azken ziklorako esperientzia praktikoa izanik, alde zuzenetik aipatu beharko genuke, oinarritzko curriculum diseinuarekin bat eginez, planteatzen diren jarduerak egituratzeko orduan zazpi eduki-multzo hartuko ditugula ardatz.

*Jarduera horietan bi interesgune aztertu nahi dira: bata, garai batean gertatutako ekintza historikoak jasotzea. Horretarako, antzinako informazio-iturriei emango diegu garrantzia batez ere, jakin ahal izateko erdi aroan Arrasateko hiribilduak ze egitura zeukan eta identifikatzeko egitura horretatik gaur egun zutik dauden elementuak zeintzuk diren. Bestea, elementu horiek identifikatzeko herrian bertan egingo den ibilbide edo itinerario batekin gauzatuko da.*

## LEHEN UNITATE-DIDAKTIKOA: NOLA JASO HERRIKO HISTORIA

Interesgarria da umeak jasotzea ohiko informazio-iturrietatik aparte (liburuak, egunkariak, aitona edo amona...), badaudela beste batzuk, ezezagunagoak direnak baina ongi antolatuz gero baliagarriak ere izan litezkeenak. Udaletxeetan dauden artxiboak dira horiek. Eta bertan antolatuko dugu gure ondorengo jarduera

### Helburuak:

- Informazio jasotzeko dauden iturri desberdinak bilatzea, identifikatzea.
- Dokumentu historikoak iraganaldia berreraikitzeke ematen duten aukera erabiltzea.
- Iraganari buruzko materialak bildu eta sailkatzea.
- Iraganeko edozein motako aztarnak baloratzea eta bere zainketaz arduratzea.
- (...)

### Gertaerak, kontzeptuak:

- Iturri arkeologikoak.
- Iturri idatziak
- Ahozko iturriak
- Sailkapena eta kontserbazioa: museoa, artxiboak, fototeka, liburutegia...
- (...)

### Prozedurak:

- Materialak bildu, sailkatu eta artxibatzea.
- Oinarrizko dokumentu batzuk irakurri, interpretatu eta aztertzea.
- Herriko friso historikoa gauzatzea.
- (...)

### Jarrerak:

- Norberaren herriko historia ezagutzeko interes eta jakin-mina.
- Ondare historiko-dokumentala kontserbatu eta baloratzeko interesa.
- (...)

### Jarduerak:

- Herriko artxibo municipala ezagutzeko irteera bat antolatzea.
- Hiribilduaren alderdi zaharra ezagutzeko irteera bat antolatzea.
- (...)



Monterron Jauregia.

## Jarduera: Arrasateko artxiboa ezagutzera goaz

Herriko historiari, eta nola ez, nortasunari buruz zerbait jakin nahi badugu, liburutegiko bidea hartzen dugu eskolan, normalean. Dena dela, badago beste espazio bat gutxi ezagutua baina hor dagoena: interesgarria da jakitea erabilgarria dela. Irteera eta ikustaldi hau baliagarria da ezagutzeko espazio hori eta dokumentuak nola antolatzen diren, zer gordetzen den, zeintzuk joaten diren, nola kontserbatzen diren...

### Helburuak:

- Herri baten iragana ezagutzeko dagoen iturri mota bat –artxibo historikoa– ezagutzea.
- Dauden dokumentu zaharrenak identifikatzea.
- Dokumentuak nola dauden antolatuta jasotzea.
- Kontserbaziorako dauden neurriak baloratzea.
- Liburutegi eta artxiboen arteko desberdintasunak ulertzea.
- Kontsultarako eta ikerketarako eman behar diren urratsak antzematea.
- (...)

### Gertaerak, kontzeptuak:

- Historiaren iturri historiko-dokumentalak.
- (...)

### Prozedurak:

- Behaketa zuzena
- Ikerketa historikoaren irudikapena
- (...)

### Jarrerak:

- Herriko ondarearen zati garrantzitsuenetarikoa non dagoen ezagutzea.
- Norberaren herriko historiari buruz interesa eta jakin-mina sortzea.
- Herriko ondare historiko-artistikoaren kontserbazioa eta balorazioa egitea.
- (...)

## Jardueraren sekuentzia didaktikoa:

### 1. Irteera egin aurretik:

- Artxiboko arduradunarekin egon eta ustez eskatu behar diren baimenak eskatuz, gure egitasmoak adierazi.
- Behatuko denaren inguruan galdetegi-fitxa bat prestatu.
- Eraikuntza kokatu.
- Informazio-iturri historikoei buruzko informazioa aurkitu.
- (...)

### 2. Irteeran bertan:

- Artxiboko arduradunaren azalpena entzun eta solasalditxoak sortu: dokumentu mota, zainketa, kontsulta...
- Hainbat dokumentu behatu, sailkapen eta kronologiaren arabera.
- Aurrez aukeratutako dokumentu erraz batzuen bitartez, ikerlari bat artxiboan sartzen den unetik egoera simulatu.
- (...)

### 3. Irteera ondoren:

- Friso edo horma-irudi bat osatu herriaren historiarekin lorturiko dokumentu historikoekin, eta bakoitzaren edukiaz fitxa bat egin.
- Informazio-iturriek (baina artxiboetakoak bereziki) duten garrantziaren inguruan, elkarrizketa bat prestatu.
- (...)

## Denbora:

Bi aste

## BIGARREN UNITATE DIDAKTIKOA: NOLA EZAGUTU HIRIBILDU HISTORIKOA

Informazioa ez da bakarrik paperean oinarritzen, harriak ere, nahiz eta ustez isilik egon, informatzen ari dira. Ongi behatu eta galdetuz gero, paregabeko informazioa emateko gai dira. Beraz, garai bateko nortasunera iristeko tresna garrantzitsuak dira, baztertu gabe, noski, eredu historiko-artistikoei gudan sortzen duten hainbat sentsibilitateren garapena.

### Helburuak:

- Arrasate hiria Euskal Herrian kokatzea.
- Hiri baten ardatz nagusiak ezagutzea: urbanismoa, etxe aipagarrienak eta erdi aroko hiri baten antolaketa.
- Plano baten bidez hiri bat kokatzeko gai izatea.
- Erdi aroko bizitzaren barnean ardatz nagusiak identifikatzea eta ezagutzea.
- Eredu historiko-artistikoak gordetzeko dauden neurriak ezagutu eta baloratzea.
- (...)



Arrasate.

# Gai monografikoa



## Gertaerak, kontzeptuak:

- Hiriaren eta paisaiaren eraldaketa historian zehar.
- Iraganaldiko aztarna nagusiak: harresiak, kaleak, etxak...
- Iraganaldiko ohitura, tradizio eta kultur adierazpenak.
- (...)

## Prozedurak:

- Hiria plano eta mapetan lekutzea.
- Hainbat informazio-iturri erabiliz bere historia miatzea.
- Hiriaren bilakaerarekin loturiko frisoa erabiltzea.
- Hainbat gertaeren eta eredu artistikoren miaketarako hainbat dokumentu erabiltzea.
- Jasotako informazioarekin eta soportu desberdinak erabiliz, ondorioak adieraztea.
- (...)

## Jarrerak:

- Herriarekiko afektibotasuna lantzea.
- Norberaren herriko historiari buruz interesa eta jakinmina sortzea.
- Herriko ondare historiko-artistikoaren kontserbazioa eta balorazioa bultzatzea.
- (...)

## Jardueraren sekuentzia didaktikoa:

### 1. Irteera egin aurretik:

- Arduradunarekin egon eta ustez eskatu behar diren balmenak eskatu (harresia, udaletxea, etxeren bat... ikusteko), gure egitasmoak adierazi.

- Hiria geografikoki kokatu mapa batean, zatiketa administratiboak kontutan izanda.
- Erdi aroko bizitzari buruz informazioa (dokumentuak, argazkiak...) bilatu eta elkarrekin trukatu.
- Behatuko diren elementuen inguruan behategi-fitxa bat prestatu.
- Ibilbide baten diseinua egin.
- (...)

### 2. Irteeran:

- Planoaren bitartez hiriaren zati desberdinak identifikatu eta kokatu.
- Behatu behar diren elementu guztiak azpimarratu.
- Kale eta auzoetako toponimiari jaramon eginez, hiriaren bizitza antolaketa desberdinekin loturak egin.
- Behaketaren bidez, aurretik prestatutako fitxa batean ondorioak jaso.
- Erdi aroko hiriaren eta hiri modernoaren osagarrien artean konparaketak egin.
- (...)

### 3. Irteera ondoren:

- Hiriak izandako aldaketak plano batean adierazi.
- Hiriak izandako gremioen bidez eta horietan aritutako hiritarren eta erabilitako tresnen bidez, Kartograma bat egin.
- Hiriak izandako gertaerak adieraziz (sorrera, fueroa, eraikuntzak, suteak...) friso bat osatu.
- Elkarrizketa bat antolatu herriko historiagile edo jakitun batekin gertaera desberdinen berri jasotzeko.
- (...)

## Denbora:

Hilabete.

# Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduak: Hezkuntza-Inplikazioak

**Javier Sánchez García.**

HAIZELAN eko koordinatzailea

*Javier Sánchez García, HAIZELANeko koordinatzailea da. Kooperatiba hau 1986an sortu zen eta bere jardura nagusia Ingurumenari buruzko Hezkuntza eta Komunikazioa da.*

*askotariko programekin, aldi berean zera lantzeko: tradizionala eta teknologikoa, eskulana eta industria, malgutasuna eta tolerantzia edo dibertsitateekiko begirunea” (Ingurumen Hezkuntzarako Zentroen Kalitate Irizpideei buruzko agiria, HABEA-Euskal Herriko Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduen Elkarte).*


Ingurumen Hezkuntzarako ekipamenduak ingurunea ezagutzeko zenbait jardura edo ekintza zertu eta bizitzeko aukera ematen duten instalazioak dira. Ingurumen Hezkuntzako baliabide gisa, Ingurumenari buruzko jardura positiboak sustatzea da azken helburua.

Eskaintza hau 80ko urteetan sortu zen Baserri-Eskolak sortzean. Geroztik, instalazioen dibertsifikazioa gertatu da: Natur Gelak, Interpretazio Zentroak, Ingurumen Eskolak, Baliabidetegiak eta Museoak, ekimen publiko nahiz pribatuz sortuak. Dibertsitate hau ekintzak egiteko denboraldiari buruzkoa ere bada. Adibidez:

- Egunez bisitatzeko zentroak: partaideek eguna igarotzen dute, baina gaurik ez.
- Egonaldietarako zentroak: azpiegitura dute taldea bertan egon dadin 2, 3 edo 5 egun normalean.

Hezkuntza-aldetik, ikaskuntza espezifikoko baterako lekuak dira, eskola-sistemaren osagarri. “*Ikasteko leku berriak eskaintzen dituzte, lan praktikoa egiteko metodologiekin, ikasgai diren gauzekin harreman zuzenean, ikastaldien denborantolaketarako beste forma batzuekin, eta*





Ekipamendu hauek errealitate garrantzitsua dira hezkuntza-esparruan duten eraginagatik, ikasle-kopuru handiak erabiltzen baititu zerbitzu horiek. Bestalde, ezin da gutxietsi lan- eta ekonomi aldetik duten garrantzia: pertsona askok lan egiten du zuzenean programa horien garapenean; bestalde, fakturazio globalak kontuan hartu beharreko ekonomi arloa dela adierazten du. Gutxi gorabeherako datuen arabera, Euskal Herriko berrogeita hamar ekipamenduetara 60.000 ikasle inguru joaten da ikasturte bakoitzean, 1.800 irakasle, ia ehun ingurumen-hezitzailearen laguntzarekin, eta fakturazio osoa 400 milioi pezetakoa gutxi gorabehera.

## Ingurumen Hezkuntzarako Ekipamenduen HEZKUNTZA PROGRAMARI buruzko kalitate-baldintzak

- Errealitatearen ikuspegi integratua lortzeko daude diseinatuta, Lehen Hezkuntzaren bukaeran ikasleak ingurumenaren eta gizakiaren arteko harreman edo erlazioez jabeturik egon daitezten, ikuspegi lineal eta norabide bakarrekotik bi norabideko ikuspegiarantz eboluzionatuz. Bigarren Hezkuntzan ingurumenaren ikuspegi konplexua garatu behar da, erlazionatua eta erlatibizatzailea.


- Ikerketan oinarrituriko metodologia onartzen da eta, beraz, arazoak konpontzera zuzendua; ikastea eraikuntza-prozesu bat dela onartzen da, hau da, ikasleen ikuspegiak hartu behar direla oinarritzat ezagupen berriak eraikitzeko.

- Diziplinarteko edo jakintza-arloen arteko eredutik daude diseinatuta.

- Ikasleen mailaren arabera helburuak eta edukiak lantzen dira. Garatu beharreko programak eskola-curriculumean integratzeko modukoa behar du izan.

- Programak malgua behar du izan, irakasleek eta ikasleek ekintzen plangintza eta kudeaketan dituzten interes anitz eta desberdinetara moldatu ahal izateko. Bereziki irakasleen parte-hartze aktiboa bultzatzen da.





## Ingurumen Hezkuntzaren helburuak Bigarren Hezkuntzarako

- Ingurumen-arazoei buruz sentsibilizatzea, konponbideak zehaztu eta zabaltzeko gaitasunak hobetuz.
- Gure jarrera eta jokabideek ingurumenean dituzten ondorioez kontzientziatzea.
- Ingurumenaren funtzionamenduaren eta, batez ere, horren oreka dinamikoaren ulerkuntza konplexua lortzea.
- Planetako biztanle guztien artean elkartasun-jarrerak garatzea, bertan dauden inguruneen elkarrekiko loturak, eta elkarrekiko dituzten menpekotasun sozioekonomiko, politiko eta kulturalak ulertuz.

- Kultur ondarea beste mota bateko kulturekiko begirunean eta erlatibismoan oinarrituz baloratzea.
- Inguruneaz gozatzeko gaitasuna garatzea, funtzionamendu-dinamikaren ezagupen sakonagoan oinarrituz.



### LA ARBOLEDA (BIZKAIA)

CENTRO DE EDUCACION AMBIENTAL PARA EL MEDIO URBANO  
HIRI/MEDIOURAKO INGURUGIRO HEZIKETAKO ZENTRUA  
CENTRE D'EDUCATION AMBIENTALE POUR LE DOMAINE URBAIN






### UITZI (NAFARROA)

CENTRO DE EDUCACION AMBIENTAL  
INGURUGIRO HEZIKETAKO ZENTRUA  
CENTRE D'EDUCATION AMBIENTALE






# Eskoriatzako

**Isabel Guridirekin elkarrizketa**

*Isabel Guridi Biain orain dela 59 urte Eskoriatzan jaio zen, antzinako Uriarte auzoan, gaurko San Juan kalean. Nahiz eta garai batean auzo hori herri-gunetik gertu eta baserri-inguraturik egon, gaur egun ia-ia baserri gabe eta herri-gunearekin bat eginda dago.*

*Garai haiek ahaztezinak dira Isabelentzat. Natura jolas lekutzat hartuta, inguruko basoak, errekek... miatu zituen. Bizibide horrek asko markatu du bere izatea eta gaur egun, baita bere hezkuntza-filosofian ere, natura presente dago bere osotasunean harturik. Baina baita berak zuzentzen duen museo-eskolan ere, eta naturarekin bat egiteko ipuinak eta metaforak erabiltzen ditu sarritan, errekurtsu gisa.*



**Eskoriatzako Museo Eskola.**

# o Museo-Eskola

Iñigo Ramirez de Okariz Telleria

## I.R. Noiz hasi zinen irakaskuntza munduan?

• 26 urte beteko ditut irakaskuntzan. Bergarako UNEDen egin nituen maisu-maistra ikasketak. Aurretik psikologia hasi nuen, baina urtebete bakarrik egin nuen. Dena dela, urtebete horrek asko lagundu zidan gizakiaren pentsamendua-  
ren eraketa nola egituratzen zen ulertzen, eta hori lagungarria izan zait nire bizitza profesionalean eta baita hainbat proiektutan ere.

## I.R. Beti zure herrian, Eskoriatzan?

• Bai. Jose Arana Ikastolan hasi nintzen lanean eta, garai hartako tesiturarekin bat eginda, eskola publikoarekin harremanetan jartzeko ardura hartu nuen, gure ikastola eta Luis Ezeiza eskola publikoaren arteko bateratzea hasteko. Hasierako helburua parbulario municipal batu bat egitea izan zen, baina ez zuen aurrera egin. Ondoren, Luis Ezeiza eskola publikoan euskara departamentu bat eratzen saiatu nintzen goiko mailetan, batez ere kontutan izanda eskola horretara baserritar asko etortzen zela eta euskarak ikastetxe horretan zuen presentzia eta tratamendua ez zela egokiena. Eta horrela, hainbat proiektutan sartuz eta lan eginez, orain eraikita dugun museo-eskolaren sorrera ere etorri zen.

## I.R. Zein da zure hezkuntza-filosofia?

• Arazoetatik abiatzen dena, aurkikuntzan eta araketan oinarritzen dena. Bide batez, konstruk-

tibista eta zehar lerroetan oinarritutakoa. Etengabe saiatzen gara zehar lerroak sartzen, dirudienez zenbait zentrotan lantzeko hain zailak diren horiek. Bidenabar, ikasleak eskatzen duenari jaramon eginez, irakasle eta ikaslearen arteko etengabeko interakzioan edo feedback-ean oinarritzen gara.

Irakaskuntzan, zentzu guztiak (ikusmena, entzumena, usaimena...) erabili behar dira ikasteko; eta nagusien artean ere berdin samar.

## I.R. Isabel ezaguna bada, Eskoriatzako Museo Eskolaren sortzaile eta zuzendari gisa da ezaguna. Zerk bultzatu zintuen horrelako museo-eskola bat egitera? Zein da bere jatorria?

• Eskoriatzako ikastola eta eskolaren bateratzea ezinezkoa izan zenez, beste proiektu batzuei ekin nien. Halaxe konturatu nintzen, alde batetik, bazeudela eskolan umeak gure ondareari buruz asko ez zekitenak. Eta bestetik, horren inguruan gelan zerbait egiten hasten nintzenean, ez genuen ez denbora eta ez leku egokirik izaten. Lapikoan babarrunak jartzen dituzunean ere antzera gertatzen da: lapikoan baba eta osagarriak jarrita sutan jartzen duzunean, denbora behar duzu babak ongi egosteko. Denboraz aurretik sua emendatuz gero, babak egin barik, gogorak egoten dira. Bada irakaskuntzan berdin, ume bakoitzari behar duen denbora, baina baita espazioa ere, eskaini behar zaio ikasten ari dena ongi jaso dezan.

Horrela kontuak, duela hamasei bat urte edo, Eskoriatzako Aitzorrotz kultur elkartearekin eta baita Irakasle Eskolarekin bat eginda, herrian erakusketa etnografiko bat egiteko proposamena bidali genien udaletxeari eta hezkuntza delegazioari. Une hartako helburua herritarrek etxean zituzten lanabes eta tresnekin kontzientziaztea izan zen. Ondoren, antzerako zerbait baina eskolara begira egitea pentsatu zen, eta Arantzadi zientzia elkarte, herriko udala, hezkuntza delegazioa eta Gipuzkoako foru aldundiaren laguntzarekin sortu zen duela hamalau bat urte udaletxe azpian, historiaurrearekin lotuta egongo zen erakusketa iraunkor bat. Orduko erakustaldi hartan ere, ez gizakiaren eboluzioa soilik baizik eta naturaren eraketa eta bilakaera ere izan zen protagonista. Alegia, natura gizakiaren gainean dagoen elementua denez, derrigortuta geunden sakon aztertzeraz. Eta horrekin batera, beste elementu berri bat ere txertatzen hasi

# Gai monografikoa



ginen museo eskola hartan: ekologiarena hain zuzen ere.

Museo-eskola hark izan behar zuen proiektzioa ikusirik, leku hura ere txiki gelditu zen, eta badira hamar-hamaika urte orain kokatuta gauden tokira etorri ginela.

## I.R. Zergatik deitzen zaio museo-eskola?

- kasteko toki bat delako, eskolaren osagarri bat delako, baina osagarri oso berezia. Museo hitza musa hitzetik omen dator, inspiraziotik alegia. Eta hori da museo batek lortu behar duena: sentimenduak azalaraztea, inspiratzea. Niretzat “ikasi” aditza “itsatsi” aditzaren sinonimoa da. Hau da, denok hartzen dugu parte irakaskuntzan, ez ikasleak bakarrik. Denok denongandik ere ikasten dugu. Ni neu ere batzuetan erantzun gabe gelditu izan naiz umeek-edo egiten zizkidaten galderekin.

Aipatu dut hemen konstruktibismoan eta zehar lerroetan oinarrituta dagoen hezkuntza-filosofia planteatzen dugula. Irakasleek itzelezko zailtasunak dituzte zehar lerroak eguneroko praktikan sartzeko, eta guk, berriz, hori normaltasun osoz egiten dugu. Eta eduki horiek behar beharrezkoak ikusten ditugu irakaskuntzan. Hau da, pentsa ezazu irakaskuntza telar edo ehundegi bat dela, eta goitik behera zintzilikaturik hariak dituela, ohiko gaiak, alegia. Irakaskuntza horrela lagatzen badugu ez dugu hezkuntza integral bat emango, ez dugu ehuna osatuko. Beraz, zeharkako hariak falta zaizkigu ehuna ongi bukatzeko, hezkuntza integrala

emateko. Zeharkako gai hauek zientzia, etnografia, historia, ingurugiroa, hirugarren mundua, pertsonen harremanak, bakea... dira.

## I.R. Beraz, horrek esan nahi du umei bakarrik zuzenduta dagoela museo-eskola?

- Ez. Museo-eskolak ez du esan nahi bertan eskola umeak bakarrik hartzen direnik, zabalik dago denontzat. Adibidez, gero eta gehiago etortzen dira barnetegietakoak, EPAkoak, jubilatua edo eskolarekin zer ikusirik ez duen jendea ere. Horiekin ere, umeekin egiten den bezala, intuizioak, alegia, barneko sentimenduak kaleratu nahi izaten ditugu; besteak beste autoestima ere lantzen dugu, zeren eta arazo psikikoak dituzten pertsonak ere etortzen baitira museoa ikustera.

Baina eskolako umeekin berriro bat eginda, lehen hezkuntzako azken urteko umeak eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako gaztetxoekin egiten dugu lan batez ere, nahiz eta batzuetan batxilergokoak ere etorri.

## I.R. Nola definituko zenuke museo-eskolaren filosofia?

- Bitxia izan da horren inguruan museo honek egin duen bilakaera, hasiera batean intuitiboki hasi ginelako antolatzen museoa. Egun batean Stephen Car izeneko ingeles aditu bat izan genuen gure artean museoa ikusten, eta museoaren ata-

lak eta antolaketa ikusi zituenean, museoak zeukan antolaketa arazoak edo irizpideak zeintzuk ziren galdetu zigun. Guk, egia esan, ez geneukan marko teoriko bat gauzak era batean edo bestean jartzeko, baina berak eman zigun falta zitzaigun testuinguru teoriko hori, eta orduan konturatu ginen nahiz eta guk intuitiboki antolatu museoak, bazuela orden logiko bat. Orden hori permakultura izeneko filosofian oinarrituta dago. Eta permakultura bera naturaren kultura da, hitz batean esateko. Ez da zerbait berria. Naturaren alde lan egitea da, ez bere aurka. Bere abiaduraren arabera moldatzea da. Eta hori eginez gero, historia ulertzeko gai izango gara, konturatuko garelako gizakiak mendez mende filosofia hori jarraitu duela. Alegia, beharrak mugitu izan ditu gizakiak. Zibilizazio guztiak horren arabera mugitu dira. Beraz, permakulturaren oinarrian naturaren behaketa sistematikoa dago.

## **I.R. Ze ataletan dago banatuta museo-eskola?**

- Hasiera batean azpimarratu behar da, museo-eskola hau bi ibilbideetan banaturik dagoela: bata, historikoa, eta bertan natura ardatz hartuta, gizarte desberdinak aztertzen dira; eta bestea, etnografikoa, eta nekazaritzarekin loturiko hainbat elementu (sukaldea, herriko produktuen eboluzioa, linugintza...) aztertzen ditu.

Horrezaz gain, hiru atal nagusitan ere banatu dugu espazioa:

- NATURA, elementu hauek kontutan izanda: ura, erreka, artadia, komunikabideak, herri baten antolaketa.

- GIZAKIA, ikuspuntu fisiko (eboluzioa) eta psikiko-espiritualarekin, eta bertan mitoak, legendak, euskal nortasunaren nondik norakoak... eta euren eboluzioa aztertzen dira.

- HISTORIA, historiaurretik gaur egun arte.

Atalak berriz, makina bat tailertxotan banaturik daude:

1. Baloreen tailerra. Nola ibili museoan oinarrituta.
  2. Paleolitoa: sua nola sortu zen. Bizipenetan oinarrituta, euskal eta kanpoko mitologian zehaztuta.
  3. Labarretako artea.
  4. Paleolitoa-neolitoa: tresnagintza.
  5. Neolitoa: garia birrintzen.
  6. Erromatarrak: eraikuntza arloa (mosaikoa, argamasa eta pisua).
  7. Erdi Aroa: lumarekin idatzi, inprentako lanak egin.
  8. Aro moderno-gaur egun: lurrinezko makina eta kooperatibismoa, Amerika eta euskaldunak...
- Tailer bakoitza bere ekipamenduarekin hornituta, metodologikoki simulazio jokoak hartzen dira oinarritzat, horien



**Eskoriatzako Museo Eskola.**

bitartez, berriro ere, umearen baloreak gero eta gehiago landu nahian.

## **I.R. Ekipamenduaz zerbait hitz egin dugu. Zer gehiago eskaini lezake museo-eskola honek?**

- Zentzumenak landu nahi baldin badira, horiek garatzeko baliabideak behar dira, eta hori da museo-eskola honetan aurkitzen dena: harea, antzina eran sua egiteko tresnak, harriak, margoak egiteko osagarri naturalak... Hala ere, beste erreminta arruntagoak ere badaude: panelak, frisoak, erremintak, muralak, mapak... Eta jakina, ikus-entzunezkoak: bideoak, telebistak, entzungailuak. Baita elementu informatikoak ere.

Dena dela, hutsune bat badago, eta hori da konpondu nahian gabiltzana: egun bat baino gehiagoko ikustaldiak



**Eskoriatzako Museo Eskola.**

egiteko barnetegi antzerako bat. Momentuz azpiegitura hori ezin dugu eskaini.

**I.R. Ezin da ulertu museo-eskola hau Eskoriatzan bertan antolatzen dituzuen ibilbide barik, ezta? Zein da euren helburua? Ze gaitasun landu nahi duzue?**

• Hala da. Ibilbideak museo honekin lotuta dagoen baliabide garrantzitsua dira, museo barruan era estatiko batean edo testuingururik gabe ikusten direnak kanpoan elkarlotuta ikusten direlako. Beraz, behaketa sistematikoak jarraituz eta hausnarketak proposatuz, kanpo alde horrek eskaintzen diguna aztertzen da.

Adibidez, denok ezagutzen dugu urtero Eusko Jaurlaritzak antolatzen duen Ibaialde proiektua, bakoitzak bere inguruko ibai-errekak aztertzeko. Guk geuk betidanik egin izan dugun ibilbidea izan da erreka aztertzearena, baina ez elementu isolatu gisa baizik eta herriko kultura orokorrarekin bat eginda. Elementu naturalak, historikoak, etnografikoak, gaur egunekoak kontutan izanda, bada, ibilbide desberdinak antolatzen ditugu. Kalera irtenez, historia eta naturaren arteko loturak eginez, hainbat eredu behatu eta aztertzeko dira. Eskoriatza osoa da museo bat, hori da gure leloa eta baita museo-eskolarena ere.

Honek guztiak badu bere azpian beste nahi bat, hori ere balore eta jarreraren aldetik lortu nahi duguna; alegia, identifikatu daitezela bizi diren herriarekin, bertan daukatenarekin, bertako partaide izanez.

**I.R. Nola izaten dira ikustaldiak? Badago aurretik loturarik eskolarekin?**

• Etorri aurretik, ikastetxe eta museoaren artean komuni-

kazioa egoten da. Horren bitartez dakigu zer eman edo zer ez, denbora... eta horren arabera egokitu egiten dugu. Egun osoz edota egun erdiz, barruko eta kanpoko lanak egiten saiatzen gara. Hori bai, hemen ez dute fitxarik eta apunte larregirik aurkituko, baizik eta orri zuriak betetzeko. Ez da konduktismoa bultzatu nahi, baizik eta norberaren oinarrietatik hasi eta gauzak ateratzen joatea.

**I.R. Eta etorkizunetan, zer asmo duzu?**

**I.G.** Amets asko bete nahian nabil:

• Ikuspuntu filosofiko-didaktikotik (permakultura) orain arte egindakoarekin jarraitu, baina gehiago sakonduz eta ahal den neurrian praktikan jarritz.

• Museoaren atalak Eskoriatzako zenbait puntutan zabaldu, esan bezala, Eskoriatza osoa museo baita, horren bitartez jendeak udalerrian sakabanatutako tokitan errealitate desberdinak ezagutu ditzan.

• Ez soilik irakaskuntzari baizik eta turismoari ere gure eskaintza zabaldu.

• Orain dugun tokia saturatu denez, Ibarraundi baserrira pasatu.

Hala ere, guztien artean gure helburu garrantzitsuenetako bat aterpetxe bat irekitzea izango litzateke, guregana datorrenari aukera emateko denbora gehiago gelditzeko.

Esandakoa kontzeptu batzuk erabiliz laburtu nahi izango banu, lehenik eta behin NATURA aipatuko nuke, bere presentzia museo osoan dagoelako (eta Eskoriatza herria ere hori da); bigarrenik, ZENTZUMENAK, museo honek ikusteko, entzuteko, ukitzeko, dastatzeko eta usaintzeko aukera ematen duelako.

Beraz, gonbidatzen zaitut/zaituztegu hau bisitatzerako, lasaitasun osoz. Patxadan ikustekoa da, eta ipuinetan nahiz metafora ederretan oinarrituta, Isabelen azalpenak entzuteko gai izango zarete. Nekatzeko beldurrik ez izan, izan ere txokoz txoko ibiltzeko aulkitxo mugikorrek ere hantxe zain daukazu(e) eta.

Eskerrik beroenak, Isabel Guridiri.

# Mirandaola, natura eta artisaugintza parkea

Sara Aranburu  
Idoia Mantxola

## SARRERA

**B**urdinolen garrantzia oso aspaldikoa da Legazpin. Ur-olen aurretik, Legazpiko mendietan haize-olen aztarna asko aurkitu da, **zepadien** (burdin-zepa botatzen zen lekuen) bidez.

Haize-oletan erabiltzen zen energia haize-lasterrek eta auspoek ematen zuten; horiekin ez zen tenperatura beroegirik lortzen, eta burdina gutxi ateratzen zen eta kalitate kaskar samarrekoa. Geroago, uraren indarraz ohartu ziren, metatu zitekeen energia zen, eta burdinolak ibaiertzetara aldatu zituzten. Ura ubidearen bidez desbideratu eta ur-tangan (anteparan) metatzen zuten, behar zutenean erabiltzeko.

XVI. mendean, Legazpin, 20 burdinola handi baino gehiago zeuden (mea edo minerala burdina bihurtzeko) eta beste horrenbeste burdinola txiki (burdina lanabes bihurtzen zutenak). Horien garrantzia oso nabaria da eskualdeko toponimian (“ola” hitzak “ferrería, forge” esan nahi du euskaraz): **Urola** ibaia, **Mirandaolako** burdinolak, **Olazar**, **Ola-berria**...

1952an Patricio Etxeberriak, Legazpiko enpresaburu garrantzitsu hark, Mirandaolako burdinola berreraikitzea erabaki zuen, eta ondoan baseliza bat ere bai, Legazpiko Gurutze Santuaren ohorez. Gurutze Santuaren historia 1580ko maiatzaren 3koa da: igandea zen, eta ur gutxi zegoen urte-sasoi hartan; olagizonak lanera joan ziren burdinolara, Elizaren aginduen kontra, igandea, Jaunaren eguna, atsedeen-eguna omen zen eta. Astegunetan bezalaxe lan egin zuten eta, beraz, 50 kilo burdina egin behar zuten 6-7 orduko lanaldian. Baina bukatzerakoan 6 kilo inguruko gurutze txiki bat bakarrik aurkitu zuten. Olagizonak, oso izuturik, gurutzea ezkutatu zuten hainbat urtez, ezin baitzuten urtu

eta desagertarazi, baina 1633an Elizak, gertatuaren zenbait lekukorekin, **miraritzat** jo zuen hura.

Legazpiko jaiak, Gurutze Santuaren ohorez, maiatzaren 3an izaten dira, eta gurutzea prozesioan eramaten da parrokiatik Mirandaolako baselizaraino.

Antzina, festetan jartzen zen martxan burdinola, baina azken lau urteotan egunero egiten dira bisita gidatuak, eta apiriletik urrira igande guztietan jartzen da martxan, baita hileko lehen igandean ere azarotik martxora. XV. mendean bezalaxe ikus daiteke lanean: olagizonak garaiko jantziekin, mailuaren hotsa burdin zatia jo eta jo, zurezko auspoak sua bizitzen, eta ola mugiarazten duen ura bere hots zirrara-garriaz.

Mirandaolako parkean, burdinola ikusteaz gain, ikusentzunezkoaren bidez burdinak Legazpin izandako historia azaltzen da, lehenengo haize-oletatik industria modernoraino, tartean ur-olak zirela.

Parketik kanpo, XVI. mendeko irin-errota bat ere ikus daiteke lanean (Igaralde baserrian), eta Gaztaren Artisau Zentroa (Erreizabal baserrian).

Baserri horiek eta parkea (burdinola+ikusentzunezkoa) ikusteko, **Mirandaolako parkeko** informazio-gunera igandean goizeko 10:30etarako iristea komeni da, baina Parkea bakarrik ikusi nahi bada, nahikoa da 12etarako hurbiltzea.

Aste barruan bisita gidatuak egiteko, hobe da aurrez 943-73.04.28 telefonora deitzea, eta erreserba egitea.

Prezioak desberdinak dira bisita-motaren arabera, burdinola martxan egon edo ez, helduak edo haurrak izan, taldean edo familian etorri... eta kasu bakoitzean beherapen desberdinak egiten dira.



**1. Mirandaolako Parkean mota askotako bisitaldiak izaten dituzue, baina zein da oro har zuen bisitarien profila?**

Aste barruan bisitari gehienak ikasle-taldeak izaten dira, baina baita barnetegi eta euskaltegietako taldeak ere. Uda-berrian eta udan erretiratuen taldeak ere asko etortzen zaizkigu. Burdinola martxan dagoen idandetan, ordea, bisitari gehienak familiak eta banakoak izaten dira.

**2. Parkeak dituen ezaugarrietatik (tokia, ingurua, baliabideak, pertsonak...), zein azpimarratuko zenituzkete?**

Ingurunea bai, Aizkorriren magalean baitago parkea, eta parke oso berezia da, natur ingurune horretan industri piezak baitaude agerian: makinak, burdinazko pilotalekua...

Eraikinak ere garrantzi handikoak dira. Informaziogunea, denda eta taberna industri pabilioi zahar batean daude kokatuta, inguruan makinaren erakusketa dagoela. Ikusentzuzkoa proiektatzeko dagoen eraikina biribila da, eta burdinazko pilotalekuaren ondoan dago. Eraikin garrantzitsuena, ordea, burdinola da, baselizaren ondoan.

Eta, noski, olagizonak daude, eta horiek tradizioari jarraitu eta lanbideari bizirik eusteaz gain, antzinako olagizonen lan gogorraz ohartzeko aukera ematen digute.

**3. Mirandaolako Parkean agerian daude natur, gizarte- eta teknologiko elementuen arteko loturak. Ikusle lotura horietaz jabetzea al da zuen xedeetako bat?**

Bai, noski. Eduki teknologikoa garrantzitsua da, baina agian azken xedea zera da: industria egonkorra lortzeko naturaren beharra ulertzea bisitarien.

**4. Eskola-esparruari begira, zein da zuen eskaintza pedagogikoa (programak, ordutegiak...)?**

Parkeko ordutegia bat dator eskola-orduekin. Goizean 10:00etan zabaltzen dugu, oro har ezin baitira lehenago etorri, eta 17:30ean bukatzen dugu, normalean orduan bukatzen baita eskola-ordutegia ere. Programa, berriz, maila guztietara zuzendua dago, baina irakasleek industrializazio-gaietarako erabiltzen dute batez ere, gure kasuan aurreindustrializazioaren eta energia garbiaren gaiak lantzeko.

**5. Zer-nolako baliabide didaktikoak (materialak, tresnak, makinak, ibilbideak...) erabiltzen dituzue bertara hurbiltzen diren ikasle eta irakasleekin?**





Bisitaren arabera, gauza desberdinak erabiltzen dira. Parkea ikusteko, ikusentzunezkoa proiektatzen da pantaila handi batean, efektu bereziekin, eta gero burdinola ikusten da, bere historia eta funtzionamendua azalduz. Bisita luzatzen bada hirin-errota (Igaralde baserrian) eta Gaztaren Artisau Zentroa (Erreizabal baserrian) ikusteko, txango labur bat egiten da ibaiertzetik Brinkolaraino (han baitago Igaralde baserria), eta bidean Telleriarte baserri-auzoa (bertan dago Erreizabal baserria) eta Elorregi jauregia ikusten dira.

Eta bisitan Burdinaren Ibilbidea egin eta Ormaiztegi eta Zerain ere sartzen direnean, hiru herriak ikusteaz gain, fitxa batzuk ematen zaizkie betetzeko eta herri horietako zenbait alderdi konparatzeko: adibidez, mearen garraioa Zerainen eta burdinarena Legazpin. Gainera, material didaktikoarekin koadernotxoak dauzkagu: ur-olei buruzko dibulgazio teknikoak, eta beste batzuk espezifikoa haize-olei buruz.

**6. Zeintzuk dira, zuen ustez, bertara hurbiltzen diren haurrek garatzen dituzten gaitasun garrantzitsuenak (afektiboak, sozialak, kognitiboak...)?**

Lortzen dituzten ezagupenez gain, badakigu beharrezkoa dela haurrek txangoak eta irteerak egitea gizartearekin eta ingurunearekin harremanak izateko. Hemen izadia errespetatzen ikasten dute, industria, ahalik eta eragin edo inpakturik txikienaz, naturan txertatzeko aukera ikusten baitute.

Energia hidraulikoa ezagutzen hasten dira, eta ohartzen dira jada XV. mendean ondasun hau ez zutela alferrik galtzen, eta erabilitako ura nahiz soberakoa berriro ibaira botatzen zutela.

**7. Parkean eskaintzen duzuen programa behar bezala aurrera eramateko hainbat lekutako eskolekin jar-tzen zarete harremanetan. Nolakoa da harremana? Hobetu daiteke? Nola?**

Urtero, ikasturtearen hasieran, eskutitz bat bildaltzen da Hego Euskal Herriko ikastetxe guztietara gure programa, liburuxka, ordutegi eta edukiekin. Gero, beraiek deitzen digute informazio gehiagoren eske. Jakina, badira ikastetxe-ak bisita hau urtero programatuta dutenak eta horiek egun zehatz bat erabaki eta gordetzea besterik ez dute egin behar. Adibidez, orain urrian baditugu ekainera arteko erreserbak ere; baina azken orduan etortzea erabakitzen duten taldeak ere hartzen ditugu.

**8. Zein aholku emango zenioke Parkera hurbildu behar duen haur-talde bati?**

Guk zera esango genioke: jolaserako gogoia ekartzeko, baina baita ikasteko ere, esparru bakar honetan —Miranda-olako Parkean, alegia— bietarako aukera dute eta.



**Oñatiko Txantxiku Ikastola.**

**A**urkeztu behar dugun lan hau irakasletzako 3.mai-lako praktiketan egindako zaborraren inguruko proiektua da. Oñatiko Txantxiku Ikastolako 5 urteko haurren gelan jarri zen martxan. Baina zergatik gai hau? Ingurumen hezkuntzan gai honek bere garrantzia hartzen du, batez ere birziklaiaren atalak. Gainera, guri hau nahiko berria iruditzen zaigun arren, birziklaiaren gaia eta kultura nagusi izango dira ikasle gazteentzat. Beraien ardura eta lana izango da behin eta berriz aipatzen diren arazoei (lurraren beroketa, euri azidoa, uraren kutsadura...) aurre egitea.

Proiektu honen helburu nagusia honako hau da: zaborrei buruzko kontzeptu garbi bat izatea eta horrek gure ingurua-  
rangan duen garrantziaz jabetzea; eta, horrekin batera, birziklatzeko eta berrerabilpenerako ohitura luzatzea.

Gure haurrek errealitatea ezagutu ahal izateko eta arazoan aurrean erantzun bat emateko ezinbestekoa da beraien gaitasun guztiak garatzea, hau da, proiektuak enfoke globalizatzailea izatea. Gainera, proiektu honetako ikasleak haur txikiak direla jakinik, beharrezkoa da gauza zehatzetan eta ekintzetan oinarritzea. Horri esker, haurrek era dinamiko eta motibagarrian egingo dute lan. Ekintzak hiru eratakoak izango dira: talde txikitakoak, bakarkakoak eta talde osokoak.

Hona hemen ekintza horietako bat adibide gisa:

Aktibitate hau aurrera eramateko, arbelean hiru edukiontzien argazkiak jarri genituen: edukiontzi horia, urdina eta berdea. Beraien azpian, berriz, kutxatxo bana. Ondoren gela lauко taldetan banatu genuen eta etxetik ekarritako

# a: Zer Egin?

## Aitziber Osinaga Beitia

Haur Hezkuntzako Irakaslea / HUHEZI Fakultateko Hezkuntza Bereziko Ikaslea



propaganda paperetatik zabor bilakatuko ziren produktuak ebaki eta kutxatxoan utzi behar zituzten.

Behin propaganda moztu eta sailkatu zutenean, paperezko edukiontzian kolaz itsasten joan ziren. Ondoren, edukiontzi bakoitzera bota daitekeena idatzi zuten, eta hori kolaz itsatsi.

*Zein izan da jarduera horren helburua?*

- Zaborra birziklatzeko gure herrietan hiru edukiontzi daudela jakitea.
- Udalerriak eskaintzen dizkigun birziklapen aukerak ezagutu eta erabilera bultzatzea.
- Birziklapen ohitura bultzatzea.
- Jarrera esperimentalak lantzea.
- Hizkuntzaren garapena lantzea.
- Haurren arteko interakzioa bideratzea

## Jarduera ondorioak

Ekintza zoragarria izan zen, haurrak oso gustura aritu ziren lanean. Gainera, proiektua jarduera bidez gauzatzen dela jakinda eta jarduera hau proiektu amaierakoa izanik, ezberdintasun nabaria ikusten zen hasierako ekintzekin alderatuz gero. Oso garbi erlazionatzen zuten edukiontzi bakoitza hondakin bilakatuko den produktuarekin. Ondorioz, zailtasun handirik gabe lortu zituzten ariketaren hasieran planteatutako helburuak.



*Oñatiko Txantxiku Ikastola.*



**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEIEN  
FAKULTATEA

Mondragon Unibertsitatea  
Dorleta, z/g  
ESKORIATZA 20.540  
Tel.: 943 71 41 57  
Faxa: 943 71 40 32  
Email: [sarrera@huhezi.edu](mailto:sarrera@huhezi.edu)  
[www.muni.es](http://www.muni.es)

